

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

**ADIMEN ANIZTASUNA ETA ONGIZATE SUBJEKTIBOA LEHEN
HEZKUNTZAN**

Egilea: Uxue González Bañuelos

Zuzendaria: Estibaliz Ramos

Leioan, 2016ko maiatzaren 29an

A U R K I B I D E A

Sarrera.....	4
1. Marko teorikoa eta kontzeptuala: adimen aniztasuna eta ongizate emozionala.	5
1.1. Adimen Anizkoitzen Teoria	5
1.1.1. Aurrekari historikoak.....	5
1.1.2. Adimen ulertzeko modu berria.....	6
1.1.3. Adimen Anizkoitzen Teoria hezkuntzan	9
1.2. Ongizate subjektiboa	10
1.2.1. Motibazioa.....	11
1.2.2. Autoestimua.....	11
1.3. Adimen aniztasuna ikasleen ongizate subjektiboaren eragile	12
2. Helburuak eta hipotesiak	13
3. Metodologia.....	14
3.1. Testuingurua eta parte-hartzaileak	15
3.1.1. Ikastola: Urretxindorra Ikastola.....	15
3.1.2. Ikasgela: LH 1.A	15
3.2. Esku hartzearen ebaluazioa	16
4. Lanaren garapena	17
4.1. Prozesua.....	17
4.2. Datuen tratamendua.....	20
5. Emaitzak eta ondorioak	21
6. Erreferentzia bibliografikoak	25
E R A N S K I N A K	27
I. Eranskina: Nola sentitu naiz?.....	28
II. Eranskina: Gurasoen baloraziorako fitxak	29
III. Eranskina: Irakaslearen baloraziorako fitxa	31
IV. Eranskina: Ikasleen adimenen profila	33
V. Eranskina: Jardueren deskribapena	36
VI. Eranskina: Edukien ebaluaziorako errubrika	44
VII. Eranskina: Esku-hartzearen emaitzen laburpena.....	45
VIII. Eranskina: Erabilitako baimenak.....	47

Adimen aniztasuna eta ongizate subjektiboa Lehen Hezkuntzan

Uxue González Bañuelos

UPV/EHU

Etorkizuneko pertsona arrakastatsu eta kompetenteak hezteak, gurekin lanean ari diren umeen zorionari eta orainaldiari erreparatzea eskatzen du. Lan honek Lehen Hezkuntza lehenengo zikloan martxan jarritako esku-hartze didaktiko bat aurkezten du, 6-7 urte arteko 25 ikasleko taldea protagonista izan duena. Proposamenak ikasleen ongizate subjektiboa sustatzea izan du helburu, horren bidez ikasketa prozesua errazteko. Modu berean, Howard Gardnerren Adimen Anizkoitzen Teorian oinarritua egonik, ikasgelako aniztasunari erantzutea bilatu du, ikasleen adimen ezberdinak onartu eta indartuz. Hori horrela izanik, ikasleek euren burua baloratua eta gai sentitzean, euren ikasteko motibazioa piztu dute, ikasketak esanguratsuagoak bihurtuz.

Hitz gakoak: adimen aniztasuna, ongizate subjektiboa, Lehen Hezkuntza, gaitasunak, arrakasta

Educar a futuras personas exitosas y competentes supone atender a la felicidad y al presente de los niños/as con los que trabajamos. Este trabajo presenta una propuesta didáctica aplicada en el primer ciclo de Educación Primaria, con un grupo de 25 niños/as entre 6 y 7 años. El objetivo de la propuesta ha sido favorecer la felicidad de los alumnos/as para potenciar así su aprendizaje. Basándose en la Teoría de las Inteligencias Múltiples de Howard Gardner, ha pretendido a su vez respetar la diversidad del aula, reconociendo e impulsando las diferentes fortalezas de cada alumno. De ese modo, los niños/as al sentirse valorados y capaces, han disparado su motivación haciendo así que los aprendizajes sean más significativos.

Palabras clave: inteligencias múltiples, bienestar subjetivo, Educación Primaria, aptitudes, éxito

Educating future successful and competent people means carrying about the happiness and the present of the children we work with. This paper introduces a didactic proposal applied in the first cycle of Primary Education, specifically a group of 25 children between 6 and 7 years old. Its aim was to promote the happiness of the pupils in order to improve their learning. Based on Howard Gardner's Theory of Multiple Intelligences, it expected to respect the diversity in the classroom, recognizing and promoting the different abilities/strengths of each pupil. In this way the children, feeling that they are worth and capable, have increased their motivation making their learning more significant.

Keywords: multiple intelligences, subjective wellness, Primary Education, attitudes, success

Sarrera; Error! Marcador no definido.

Zoriona gizakiok bizitzan dugun helburu nagusienetarikoa bat dugu, nagusia ez esatearren. Etengabe aritzen gara horren bila, zoriona eskaintzen diguten pertsonen, gauzen eta bizipenen bila eta eskaintzen ez digutenak alde batera uzten saiatuz. Umeen nahia ere bada zoriontsu izatea eta hori horrela izanik eskolena ere izan beharko luke.

Por encima de la socialización o la culturización la misión de la escuela sería enseñar al alumnado a ser más felices, a apasionarse por la vida y, por tanto, por los aprendizajes tan interesantes que existen en nuestro entorno. Es deseable enseñar a los niños y niñas a vivir con proyectos y con ilusión en lugar de con problemas y aburrimiento (Sáenz-López eta Díaz, 2012:35).

Onartua eta baloratua sentitzea norbere zorionerako lagungarria izan daitekeelakoan, Lehen Hezkuntzako gela batean Adimen Anizkoitzaren Teorian oinarriturik lan egiteak izan dezakeen eragina aztertzea da lan honen helburu nagusia. Izan ere, adimen eta gaitasun aniztasuna zein ikasteko modu ezberdinak gelan bertan onartzea ikasleen zorionari lagundu ahal diola pentsatzea logikoa dirudi, modu horretan ezberdintasunak onartu, baloratu eta bultzatuko baitziren. Ikasle bakoitza den modukoa onartzea ahalbidetzen du adimen aniztasunean sinesteak, eta Garcíak (2014) azaltzen duenez Adimen Anizkoitzen Teoriaren aplikazioak ikasle bakoitzarengandik onena lortzeko aukera eskaintzen du, aldi berean ikasleek ikasketa prozesua pertsonal sentitzen eta beraz poztasun eta motibazio iturritzat ulertzea eragin dezakeelarik.

Hori lortzeko, adimen aniztasuna, ikasleen emozioak eta zoriona eta bi faktore horien arteko lotura oinarritzat dituen proposamen didaktiko bat planifikatu eta aurrera eramango da.

Gorputza zain dezagun! izena duen esku-hartze didaktikoa izango da, 4 astetan zehar (18 saio) giza gorputzaren eta nutrizioaren inguruko edukiak landuko dituenak. Ikasleen adimen ezberdinak mugiaraztea bilatuko du, modu horretan ongizate subjektiboa sustatzeko asmoz. Saioretan jorraturiko edukien inguruko ebaluazioaz gainera umeen emozioei erreparatzen dien balorazioa konstantea izango da. Honek, gurasoen, ikasleen zein irakaslearen parte hartzeari esker, proposamenak izandako eragina ezagutzea ahalbidetuko du, ikasleek jasan ditzaketen aldaketen inguruko informazioa eskainiz.

Bilboko Urretxindorra Ikastolako Lehen Hezkuntza 1. mailako talde batekin aurrera eramango da proposamena, 6-7 urteko 25 ikasleko D eredu talde batekin hain zuzen

ere. Horien artean Hezkuntza Premia Berezidun (HPB) ikasle bat dago, Down Sindromedun ume bat eta beraz, haren garapen mailari egokituriko planifikazioa beharrezkoa izango da.

1. Marko teorikoa eta kontzeptuala: adimen aniztasuna eta ongizate emozionala

Howard Gardnerrek berak azaltzen duenez, eskola tradizionala edukien barneratzean oinarritzen da, horiek pentsamendu matematikoaren eta hizkuntzaren arloetara murriztuz hein batean eta ondorioz, ikasteko eta informazioa prozesatzeko bide ezberdinak daudela ahaztuz (Prieto, Navarro, Villa, Ferrándiz eta Ballester, 2002). XX. mendearen hasieratik argitaratu izan diren adimenaren inguruko ikerketa ezberdinei erreparatuz, ulergarria dirudi hori horrela izatea, Vázquez-en (2014) hitzei jarraituz, gure hezkuntza sistemak ezarritako ikaskuntza planek bat egiten baitute adimenaren inguruko ikuspegi tradizionalekin.

Aurrerago azalduko dugunez, Gardnerren teoriak aurrekariekin talka eginez, gizakiok 8 adimen ditugula defendatzen du (Gardner, 1995) eta ideia hori Lehen Hezkuntzako gela batean kontuan hartzeak, onura ezberdinak eragin ditzake ikasleen garapenean, baita ikaste-irakaste prozesuan ere. Izan ere, Bahónek (2012) azaltzen duenez, ikasleen gaitasunak ezagutzea ahalbidetzen digu eta horietatik abiatuz euren autokontzeptua garatzeko eta zailtasun edo ahultasunak murrizteko aukera eskainiz. Horrekin batera, ikasleen autoestima indartzeko bidea izan daiteke, euren gaitasunak baliagarri eta baloratu sentiarazteko modua izan daitekeelako (Prieto, Ferrándiz eta Ballester, 2001). Azkenik, ikasgeletan topa daitekeen aniztasunari aurre egiteko estrategiak garatzeko aukera eskaintzen du, ikasleei egokitzen zaien ikaskuntza bideak ezagutzeko tresna da eta (Ferrándiz, Prieto, Bermejo eta Ferrando, 2006).

Hori guztia horrela izanik, adimen aniztasuna gelan onartu eta baliatzea, ikasleen ongizate emozionalerako onuragarria izan daitekeela pentsa daiteke. Vargasek (2004) dioenez, ikasleak hobetu sentituko dira, euren gaitasunengatik baloratuak izango direlako eta gainontzeko adimenak garatzeko aukera eskainiko zaielako

1.1. Adimen Anizkoitzen Teoria

1.1.1. Aurrekari historikoak

Salmerónen (2002) hitzei jarraituz, gaur egun ez da, eta ez da inoiz izan, adimen kontzeptuaren inguruko batasunik. Historian zehar hainbat izan dira gizakion ikaskuntza prozesuarekin loturik dagoen alderdi garrantzitsu hori aztertu izan duten adituak. Autore berak azaltzen duenez, 1970eko hamarkada arte adituek adimenaren alderdi kognitiboari soilik erreparatzen zioten hura aztertzerakoan. Denborak aurrera egin ahala, adimenaren kontzeptua zabalduz joan da, adimen bakarra onartzen duen perspektibatik adimen edo gaitasun aniztasuna defendatzen duten teoretara (Coll, Palacios eta Marchesi, 2001).

XX. mendearen hasieran sorturiko teoria klasikoek, adimenaren inguruko lehen ikerketen ondorio izan zirenek, adimenaren planteamendu monolitiko eta faktoriala eskaintzen zuten (Salmerón, 2002). Ildo honi jarraituz sortu ziren 1912an gaur egun oraindik ere erabiltzen diren test estandarizatuak eta Adimen-Koizientea (gaztelaraz *Cociente-intelectual* edo *CI* deritzona) (Coll et al, 2001). Garai horretan, nagusitzen zen ikuskerak, adimena gaitasun bakar eta aldaezin modura ulertzen zuten eta eremu intelektualean ikasleen artean ematen ziren ezberdintasunak aztertzea zuten ikerketek helburu (Salmerón, 2002).

Denborarekin adimena aztertzeko bideak zabaltzen joan ziren eta adimenaren estrukturan eboluzio eta garapenari erreparatzen zioten ikerketak agertu ziren, Piaget eta Vigotskyren eskutik (Salmerón, 2002). Salmerónek (2002) azaltzen duenez, lehenengoak, umeak dituen mundua ezagutzeko moduak aztertu zituen eta adimenaren jatorri biologikoa defendatzen zuen. Vigotsky-k ordea, adimenaren garapenean ikaskuntza eta heltze prozesuek parte hartzen dutela azaldu zuen (Salmerón, 2002), adimena produktu soziala dela defendatuz (Avila, 1999).

1.1.2. Adimen ulertzeko modu berria

Adimenaren kontzeptua are gehiago zabaltzen duen teoria dugu Howard Gardner eta bere kideek aurkezturiko Adimen Anizkoitzen Teoria, adimenaren ikuspuntu pluralista bultzatu eta gizaki orok gaitasun ezberdinak ditugula defendatzen duena (Avila, 1999).

Aurreko puntuan aipaturiko adimenaren ikuspuntu monolitikoekin talka egiten du, ez baitu uste adimena gizakiongan berez ematen den gaitasun bat denik ezta tresna estandarren bidez neurtu daitekeenik ere (Mora eta Martín, 2007). Gainera, bere aurrekari diren ikuspuntu horiek gizakion artean ematen den gaitasun aniztasuna azaltzeko balio ez dutela esplikatzeko du Gardnerrek (1995).

Gardnerrek (1995) proposatzen duen eskola motak, ikasle orok gaitasun ezberdinak dituela eta horiek hezkuntzaren bidez gara daitezkeela defendatzen du. Bere hitzetan (1995), adimena arazoei erantzuteko edo testuinguru batean edo batzuetan baloratuak izango diren produktuak sortzeko gaitasuna da. Hori onartuz, ikaslea banako indibidual bezala ulertzen duen eta ikaskuntza prozesua ikasleatariko bakoitzean zentratuak burutzen duen eskola proposatzen du (Gardner, 1995).

Zortzi dira gaur egun bere teoriak onarturiko gizaki orok ditugun adimenak, kopurua subjektiboa eta moldagarria izan daitekeelarik (Vargas, 2004). Adimen horiek, pertsonaren arabera modu batean edo beste konbinatu eta funtzionatuko dute, banakako bakoitza adimenen nahasketa dinamiko bat izango delarik (Guzmán eta Castro, 2005), adimena inguruneari, bizipenei eta jasotako hezkuntzari esker gara daitekeen gaitasuna baita (Vargas, 2004).

Hona hemen, zortzi adimenen deskribapen laburra:

- **Adimen linguistikoa:** hizkuntzaren erabilerarekin lotutako gaitasunekin du harremana, idatzizko zein ahozko erabilerarekin hain zuzen ere (Shannon, 2013). Horrela, adimen honen bidez gara gai besteak beste, esaldiak eraikitzeko, hitzak euren esanahi eta ahoskeraren arabera erabiltzeko eta hizkuntza testuinguruari egokitzeko (Macías, 2002).

Lehen Hezkuntzako ikasleei edo umeei orokorrean erreparatuz, Lucaren (2004) arabera, adimen hau garatua dutenek, hizkuntzaren eremu ezberdinei loturiko jarduerak izango dituzte gustuko, hala nola, irakurketarekin, idazketarekin, istorioen narrazioarekin eta hitz egitearekin loturikoak.

- **Adimen logiko-matematikoa:** zenbakiak modu egokiak erabiltzeko gaitasun bezala definitzen dute Guzmán eta Castrok (2005) adimen hau, pentsamendu abstraktuarekin, antolaketarako gaitasunarekin, eskemen eraikuntzarekin eta harreman zein jolas logikoekin loturik dagoela azalduz.

Buruketak ebaztean, zenbakiekin lan egitean eta esperimendazioaren bidez ikastean arituko dira gustura adimen hau garatua duten ikasleak (Luca, 2004).

- **Adimen espaziala:** izenak berak dioenez, espazioarekin eta horren antolaketarekin zerikusia duen adimena dugu hau, irudiekin lan egin eta hiru dimentsioetan pentsatzeko gaitasuna hain zuzen ere (Guzmán eta Castro, 2005).

Lucak (2004) azaltzen duenez, giza gaitasunen eremu honetan ondo ari diren umeek, diseinatzea, marraztea, eraikitzea, sortzea edota esnaturik amestea izango dute gustuko.

- **Adimen kinestesikoa:** oinarrizko bi gaitasunetan banatzen dute adimen kinestesikoa Mora eta Martínek (2007), gorputzaren mugimenduaren kontrola eta objektuak maneiatzeko gaitasuna. Horrela, motrizitate lodi zein mehearen kontrola izango dute adimen hau garaturik duten pertsonak. Guzmán eta Castroren (2005) iritziz gainera, espresiorako erraztasuna eskaintzen du adimen honek.

Mugimenduaren, ukimenaren eta gorputz hizkuntzaren bidez aritzea izango dute gogoko gorputzari loturiko adimen honetan euren potentzialtasuna topatzen duten ikasleek (Luca, 2004).

- **Adimen musikala:** Shannonen (2013) arabera, forma musikalak antzematen dituen adimena da hau, musikaren konposaketa, interpretazioa eta balorazioa ahalbidetzen dituen. Musikarekin ez ezik, soinuekin orokorrean harremana du, inguruneke zein naturako soinuekin (Guzmán eta Castro, 2005).

Adimen musikala garaturik duten haurrek, musika entzutea, abestu zein ahapetik kantatzea edota musika tresnaren bat jotzea izango dute gustuko (Luca, 2004).

- **Adimen naturalista:** naturarekin eta izaki bizidunekin estu loturiko adimena dugu hau eta horiek sailkatzeko, ezagutzeko zein haiekin harremantzeko gaitasunak hartuko ditu bere barne (Mora eta Martín, 2007).

Alderdi honetarako erraztasuna duten ikasleak naturarekin kontaktuan aritzean eta horretan parte hartzean arituko dira gogokoen, baita sailkapenen bidez lan egitea ere (Luca, 2004).

- **Adimen intrapertsonala:** norbere buruarekiko ezagutza eta kontrolarekin loturik dago, sentimendu eta emozioen hautemate zein bereizketarekin (Mora eta Martín, 2007). Guzmán eta Castrok (2005) diotenez, adimen honi esker garatuko dira besteak beste, autokonfiantza, autoestima eta automotibazioa.

Lucak (2004) azaltzen duenez, hausnarketarekin eta bakarkako lanarekin loturiko edota bere interesei jaramon egiten dioten jarduerekin disfrutatuko dute gehien adimen intrapertsonala garaturik duten ikasleek.

- **Adimen interpertsonala:** besteekiko harremanekin zerikusia duen adimena da interpretsonala, aurrekoari egokituriko gaitasunak besteak ulertzeko baliatzean. Horrela, gainontzekoen motibazio, interes zein emozioak hautemateko gaitasunak hartuko ditu bere barne (Mora eta Martín, 2007).

Besteekiko ulermena eskaintzen duen adimen mota hau garaturik duten umeek, lagunekin zein jendearekin aritzea eta haiekin hitz egitea dute gustuko (Luca, 2004).

Azken biak adimenaren inguruan egindako beste teoria bati estu loturik daude, Adimen Emozionalari hain zuzen ere, Golemanek izen horrekin bateratu baitzituen Gardnerren adimen pertsonalak (Guzmán eta Castro, 2005).

Norbere zein gainontzekoen emozio eta sentimenduak hauteman eta ezagutzeko gaitasuna barne hartzen du Adimena Emozionalak, emozioak haien artean bereizten eta horiek norbere pentsamendu eta ekintzen gidari moduan erabili ahal izateko beharrezkoa dugun gaitasuna (Vázquez, 2014).

Salmerónek (2002) azaltzen duenez, teoria honen inguruko hasierako ikerketek Adimen Emozionala pertsona orok dituen bost dimentsioetan banatu zuten: norbere emozioen ezagupena, emozioen kontrolerako gaitasuna, automotibaziorako gaitasuna, besteen emozioen antzematea eta harremanak kontrolatzeko gaitasuna. Alderdi horiek hezkuntzaren bidez gara daitezkeela defendatzen zuten ikerlariek, baita ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikoari lagun diezaioketela ere.

Hezkuntzari dagokionez gainera, Golemanek (1996) bere Adimen Emozionalaren inguruko lanean, ikasketa umeen emozioetatik aldendurik gertatzen ez dela defendatu zuen eta hori horrela izanik, alfabetatze emozionala gainontzeko ikasgaien ikaskuntza bezain garrantzitsua dela. Horrela ikasgelan ikasleen garapen emozionalari erreparatzea ezinbestekoa da, eta beraz, Salmerónek (2002) dioen moduan, curriculumean bertan txertatu beharko litzateke, ikasleen garapen integrala lortzeari zuzenduriko gainontzeko hezkuntza ekintza guztiekin batera. Modu berean, eta autore horren hitzei jarraituz, garrantzitsua litzateke ikasleei sentimendu oro baliagarria dela ulertaraztea.

1.1.3. Adimen Anizkoitzen Teoria hezkuntzan

Gardnerrek berak dioenez (1995), adimenaren inguruko bere ikerketak psikologiaren arloan erabiliak izateko jaio ziren arren, hezkuntzaren eremuan izan dute hasieratik arrakasta gehien. Ikaste-irakaste prozesua ulertzeko eta aurrera eramateko modu berria eskaintzen zuen ikasleen adimen aniztasuna onartzeak eta horrek piztu zuen eskolen arreta.

Aurretik esan dugun bezala, ikasle bakoitza bakarra eta errepika-ezina dela onartu beharra dago, baita bakoitzak ikasteko eta beraz edukietara heldu edo gaitasunak garatzeko bere bide propioa duela ere. Horri aurre egiteko bidea izan daiteke adimen aniztasuna baliatzea, izan ere, Bahónekín (2014) bat eginez, zortzi adimenak, euren arteko konbinaketarekin batera, ikasleen indar edo ahultasunak izan daitezke, informazioa jaso eta ulertzeko zortzi bide ezberdin eskaintzen dituzten aukerak. Azken finean, adimen orok eskaintzen ditu garapenerako errekurtsu eta gaitasun baliagarriak (Guzmán eta Castro, 2005).

Horrek guztiak, gure ohiko ikaste-irakaste ereduak kolokan jartzea eragiten du, gaitasun ezberdinak eta edukietara ailegatzeko modu ezberdinak onartzeak prozesu uniforme eta bakarra baliagarria izatea ekiditen duelako (Avila, 1999).

Gardnerrentzako (1995) eskolaren helburua gaitasun guztiak indartu eta bultzatzea eta ikasleak euren gaitasun, nahi eta gustuetara moldatzen diren bokazioak topatzeko bidean laguntzea izan beharko luke. Eskola mota horretan irakaslea ikasleen garapen eta autonomia sustatzen duen ingurunea eskainiko du eta ikaslea bere ezagutzaren eraikitzaile aktiboa izango da, bere ideiekiko konfiantza garatuko duena eta porrota ikaskuntzarako baliabide bezala ulertuko duena (Vargas, 2004).

1.2.Ongizate subjektiboa

Aurretik esan bezala, ikasleen ongizate emozionala beste edozein alderdiren gainetik egon beharko luke eskolaren eta hezkuntzaren barnean, edo beste modu batean esanda, eskola pentsatzen, arazoak konpontzen, emozioak garatzen eta zoriontsu izaten irakasten duen ingurunea izan beharko luke (Gutiérrez, 2014). Gizakion bizitzaren helburu nagusi bezala definitzen dute autore ezberdinek zoriona (Sáenz-López eta Díaz, 2012; Vázquez, 2014) baita zoriontsu izaten ikastea posible dela defendatu ere (Sáenz-López eta Díaz, 2012).

Hori lortzeko, Sáenz-López eta Díazek (2012) ikasgelan baliagarriak suerta daitezkeen zenbait estrategia aurkezten dituzte, hala nola, ikasleei gelan bertan nola sentitzen diren galdetzea eta horri buruz aritzea, emozioak hautematen eta ezagutzen irakastea eta norberaren emozioak antzemateko gaitasuna garatzea. Horiez gain, ikasleek ondo egin duten hori onartu eta goraiatzaren beharra azaltzen dute. Ikasleen zoriona bermatu

edo bideratzeko lan egitearen helburu nagusienetarikoa bat ikasleek egindako ekintza, jarduera edota ariketa bakoitzarekin gozatzea da (Sáenz-López eta Díaz, 2012).

Ikasgela barruan ikasleen ongizate subjektiboa sustatzeko eragile garrantzitsuak izan daitezke ikasleen motibazioa zein autoestima, lehenengoa piztu eta norbere buruarekiko iritzi positiboa garatzeak euren zorionari lagun diezaiokelako.

1.2.1. Motibazioa

Hezkuntzaren inguruan aritzean, bi motibazio mota bereizten dira normalean: kanpo motibazioa eta barne motibazioa. Lehenengoa sari eta zigorrak jasotzearen ondorio bezala definitzen du L'Ecuyerrek (2015), haurra harengandik kanpo dagoen zerbait lortzearen (edo ekiditearren zigorraren kasuan) aritzen denean ematen den motibazioa. Barnekoa ordea, umea bere buruarengatik soilik aritzen denean ematen dela dio, bere jakin-minak, ardura sentimenduak edo egiten ari den hori ondo egiteko desioak mugitzen duenean.

Kanpo motibazioa bultzatzeak ikasketa prozesua oztopatu dezake eta beraz, horren ordez barne motibazioa bultzatu beharra dago (Crozier, 2001). Are gehiago, Crozierrek (2001) dioenez, barne motibazioak gidaturiko hezkuntza prozesuak ikaskuntza eraginkorragoa bermatzen du. Hori lortzeko, ikasleekin burutuko diren jarduerak hiru faktore bete behar dituztela dio: euren gaitasunak garatzeko aukera eskaini, aurrezagutzen eta ezagutza berrien arteko oreka errespetatu eta ikasleen autonomia bermatu. Horrez gain, ikasleen interesa pizten duten ekintzen garrantzia goraiatzeko, berrikuntzak, harridurak, fantasiak eta umoreak interesa eta dibertsioa pizteari laguntzen diotela azalduz. Modu berean, ikasleen sormena eta erabakiak hartzeko gaitasuna garatzea beharrezkoa dela dio.

Edozein modutan ere, ikasleekin lan egiterakoan euren motibazioa pizteko, García (2014) dioena kontutan izatea komenigarria dirudi: ekintza bat motibatua egiteko, ekintza bera izan behar da helburua eta ez beste edozer lortzeko tresna hutsa.

1.2.2. Autoestimua

Norbere buruarekiko duen irudiarekin loturiko kontzeptua dugu autoestimua, Palacios, Marchesi eta Collen (1999:307) hitzetan, “autoestimazioa haurrek beren buruez duten ezagutzaren ebaluazioari edo iritziari egiten dio erreferentzia”.

Hainbat dira autore horien arabera ebaluazio edo iritzi horretan eragina duten edo izan dezaketen faktoreak. Familiak eta umeak harekin duen harremanak bere buruaren ezagutza prozesuan eta autoestimua garapenean berebiziko garrantzia izango dute, baita eskolan bizitako esperientziak ere. Horiez gainera, Lehen Hezkuntzako urteetan zehar “haurrak kideekin ezartzen dituen harremanek gero eta zeresan handiagoa izango dute autoestimazioa determinatzerakoan” (Palacios, Marchesi eta Coll, 1999: 307).

Ikasgelaren barruan azken faktore hori kontuan hartzea oso garrantzitsua da, askotan hezkuntza eremuan ikasleen gaitasunen arteko konparaketa bultzatzen delako, ikasle orok eduki eta helburu batzuk lor ditzan, norbere ahalmen propioak hobetzea bermatu ordez (Crozier, 2001). Edonork du bere gaitasunak edozein direla ere, horiek hobetzeko eskubidea eta bere ahalmenez harro sentitzeko eskubide (Crozier, 2001).

1.3. Adimen aniztasuna ikasleen ongizate subjektiboaren eragile

Aurreko puntuetan azaldu bezala, ikasgelaren barruan ikasleen ongizate subjektiboa sustatzea eskolaren helburu nagusienetarikoa bat izan beharko luke. Bide horretan Adimen Anizkoitzen Teorian oinarrituriko lan egiteko modua erabiltzea lagungarria suerta liteke.

Batetik, ikasleen arrakastaren alde egiten duen ingurunea sortzen da ikasgelan adimen aniztasuna onartzean, ikasle ororen inklusioa sustatzen duena (Gomis, 2007). Horrela euren gaitasunak hobetzeko aukera eskainiko zaie ikasleei, euren buruaz duten irudia hobetzeko bidean lagunduz eta ume guztiak taldeko kide sentitzea bermatuko da. Bestetik, Gomisek (2007) azaltzen duenez, norbere gaitasunen bidez ikasteko aukera eskainiko zaien heinean, maila sozial, kognitibo zein emozionalean aldaketak emango dira, ikaslearen garapen positiboari lagunduko diotenak.

Adimen Anizkoitzen Teoria ikaste-irakaste prozesuan baliatzeak, aurretik azaldu dugunez, ikasle bakoitzaren gaitasunak kontuan hartzen dituzenez, ikasleen autoestimari modu positiboan eragingo diola ondorioztatu daiteke, Crozierrek (2001) dioenez, gaitasunak baloratu eta bultzatzeak ikasleen autoestima indartzeari lagunduko baitio. Ez bakarrik autoestimari, ikasleen gaitasunak bere ikasketan prozesuan kontuan hartu eta goraiatzeko euren motibazio, autoestimu eta norbere buruarekiko konfiantza sustatuko baititu (Gomis, 2007).

Hiru faktore horiek ongizate subjektiboaren eragile izanik eta Veladoren hitzei erreparatuz (2014), ikasleen talentu eta gaitasunak onartzeak euren zoriontasunerako bidean lagun diezaiekeela esan daiteke. Izan ere, norbere gaitasun, talentu edo adimenen garapen eta indartzeak, baliagarritasun eta arrakasta sentimenduak sortzen ditu (Velado, 2014).

Vargasek (2004) dioen moduan, irakasleek ikasle bakoitza errepikaezina, bakarra eta ezberdina dela onartu beharra dute eta hortik abiatuz lan egin, ikasle oro bere gaitasunengatik baloratua sentitu dadin. Horixe bera bultzatzen da adimen aniztasunean oinarrituriko proposamenen bidez (Gomis, 2007). Azken finean, Gardnerren teoria ikasgelan baliatzeak ikasleek duten hoberena azalratzea eta erabiltzea ahalbidetuko du, euren ikasketa prozesua ibilbide propio eta asebetetzearen iturri bezala ulertzea eraginez (García, 2014).

Horixe bera da lan honen bidez aztertu nahi dena, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleekin Adimen Anizkoitzen Teoria ikaste-irakaste prozesuan zehar baliatzeak euren ongizatean duen eragina. Izan ere, Veladok (2014) dioen moduan, Adimen Anizkoitzen Teoria baliatzeak norbere errealizaziorako bidean lagungarri izango zaizkigun gaitasunak topatu eta garatzeari lagundu diezaioke, hau da, zorionerako bideari.

2. Helburuak eta hipotesiak

Aurretik esan bezala, lan honen enborra Adimen Anizkoitzen Teorian oinarrituriko proposamen didaktikoa da, ikasleen gaitasunak ikasteko tresnatzat baliatuko dituen. Horren bidez giza gorputzaren eta nutrizioaren inguruko eduki batzuk lantzeaz gainera, adimen aniztasuna gelan baliatuz ikasleen ongizate subjektiboa sustatzea bilatzen da, besteak beste helburu espezifiko hauek lortzeko asmoz:

1. Ongizate subjektiboak ikasketa prozesuan duen eragina aztertzea.
2. Adimen aniztasuna gelan onartu eta baliatzeak ikasleen ongizate subjektiboan izan dezakeen eragina aztertzea.
3. Adimen Anizkoitzen Teorian oinarrituriko esku-hartzea ikasleek euren burua baloratuta sentitzeko eta euren gaitasunak baliagarri ulertzeko bide egokia dela frogatzea.
4. Umeak zoriontsuak direnean modu aktiboagoan, efikazagoan eta erosoagoan lan egiten dutela frogatzea.

Helburu horiek kontutan harturik, honako hauek dira burutuko den prozesuaren inguruan egiten diren hipotesiak:

1. Ikasleen ongizate subjektiboa sustatzen denean euren ikasketa prozesua erosoagoa bihurtzen da.
2. Ikasleen adimenak eta gaitasunak (guztiak) ikasgelaren barruan eta ikasketa prozesuaren barnean baliatzean, umeei ikasi beharrekoa ikasteko gai sentitzen dute euren burua, edukietara ailegatzeko modu berriak zabaltzen baitzaizkie, euren gaitasunekin bat egiten duten bideak hain zuzen ere.
3. Eskatzen zaiena betetzeko gai sentitzen diren heinean, ikasketa prozesuarekiko motibazio handiagoa dute baita euren burua baloratuago sentitu ere. Hiru faktore horiek ikasleak zoriontsu izateari laguntzen diote, gelan egiten diren lanak burutzean gutxienez, horri esker are motibatuago eta parte hartzaileago daudelarik.

3. Metodologia

Gure gorputza zain dezagun! izena duen proposamen didaktikoa izango da, 55 minutuko 18 saio iraungo duena. Adimen Anizkoitzen Teorian oinarrituriko proposamena izango da, ikasleen adimenak kontuan hartzen dituen, euren gaitasunak eduki berriak bereganatzeko tresnatzat baliatzea bilatuz.

Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasle talde batekin burutuko da, egunerokotasunean darabilten ordutegia errespetatuz, Txanelari eskaini ohi dizkieten orduak erabiliz. Horregatik, eta gainontzeko ikasgaiekiko zein 1. mailako beste ikasle taldearekiko koordinazioa bermatzeko, Txanela 5. unitateak jorratzen dituen eduki berak izango dira esku-hartzearen oinarria: giza gorputza eta nutrizioa.

Proposamen didaktikoa osatzen duten jardueren bidez, edukietara ailegatzeko bide ezberdinak topatzea bilatzen da, horrela taldearen aniztasunari erantzun egokia emateko. Modu berean, norbere burua ezagutu eta baloratzeko bidea eskaini nahi zaie ikasleei, baita norbere sentimendu eta emozioak onartu eta baloratzeko bidea ere. Adimen aniztasuna kontuan hartu eta baliatuko den heinean gainera, ikasleek aniztasuna eta horren balioa ezagutuko dituzte, horrela aniztasunaren onarpen eta balorazioa sustatuko direlarik.

Proposamen didaktikoaren helburu nagusia dena den, ikasgelan giro zoriontsua sustatzea da, ikasle zoriontsu eta baloratuak biltzen dituen, euren gaitasunak errespetaturik eta baliotsu sentitzen dituzten ikasleak.

3.1. Testuingurua eta parte-hartzaileak

3.1.1. Ikastola: Urretxindorra Ikastola¹

Urretxindorra Ikastola Bilboko San Adrian eta Miribilla auzoen arteko mugan kokaturik dago. 1973an ikastola sortu zenetik aldaketa asko jasan dituen ingurunea dugu hau, hiriaren kanpoaldean kokaturiko langile auzo bat izatetik, Miribillaren jaiotza eta zabalkundeari esker Bilboko bizitzaren parte izatera igaro dena.

Ikastolen Elkartearen parte den gurasoen kooperatiba bat da, izaera euskaldun, euskaltzale, eleanitz eta integrala duena. Itaunduriko hezkuntza erakundea izanik, orokorrean maila sozioekonomiko ertaineko familiek osatzen dute ikastola, horiek direlarik ikastolaren inguruko erabaki gehienetan esku hartze handiena duten kideak.

Gaur egun, 0 eta 18 urte arteko hezkuntza etapak eskaintzen ditu, Haurtzaindegia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa hartzen dituelarik bere barne. Zabalkuntza proiektua martxan jarri berri du, 2016-2017 ikasturteetik aurrera ikasle gehiagorentzako plazak eskaini ahal izango dituelarik.

3.1.2. Ikasgela: LH 1.A

Esku-hartze didaktikoa Lehen Hezkuntzako 1. mailako gela batean burutuko da. 6-7 urte arteko 25 ikaslek osaturiko taldearekin eramango da aurrera, horietariko bat Hezkuntza Premia Berezidun umea izanik (Down Sindromea) eta beraz, jarduera batzuk haren gaitasunei egokituak egon beharko direlarik.

Ikastolak ikasleek etorkizunean beharrezkoak izango dituzten gaitasunak garatzeari lagunduko dion hezkuntza bultzatzen du. Lehen Hezkuntza 1. ziklorako zehazturiko helburuen artean irakurketa eta idazketa prozesuari zein matematika alorrari loturikoek dute presentzia handiena, oinarriko trebetasun eta ezagupenak bereganatzearen beharri erantzutearren. Hori horrela izanik, bi eremu horiek dira 1. mailan gehien lantzen direnak gainontzeko ikasgaietan buruturiko jarduerak ere ezagutza eta trebetasun horien lorpenari laguntzen diotelarik askotan

Ikasleen artean ematen diren harremanei dagokionez, gehienak batera ikasi dute aurreko urteetan ere (Haur Hezkuntzako etapan) eta beraz, ondo ezagutzen diote elkarri. Horri

¹ Ikastolaren baimenarekin aipatua (Ikus VIII. Eranskina: Erabilitako baimenak)

esker gelako giroa atsegina izan ohi da, errespetua eta adiskidetasuna nagusi direlarik. Tutorea ikasleekiko jarrera hurbila izaten du eta familiekin izan ohi duen komunikazioari esker taldeko kide ororen egoera (emozionala, etxeko egoera, iraganean izandako arazoak, e.a.) ezagutzen ditu, behar bezalako erantzuna eskaintzea erraztuz.

Ikasleen artean gaitasun ezberdinak nabarmentzen dira, bakoitzak adimenen konposizio propioa duelarik. Hori horrela izanik, ulertzekoa da gelan buruturiko ariketa eta jardueren aurrean modu ezberdinean erantzutea, batzuetarako erraztasuna eta beste batzuetarako zailtasunak agerraraziz. Irakurketa eta idazketa gaitasunei dagokionez dauden aldeak dira goraipagarrienak, gutxi batzuk erraztasun handiz moldatzen diren arren, badagoelako irakurketa zein idazketaren garapen prozesu motela daramaten ikasleen talde bat.

Hezkuntza Premia Berezidun umearen egoerari dagokionez, taldean integratuta dago eta ikaskideek errespetuz tratatzen dute, baita behar duenean laguntza eskaini ere. Bere hezkuntza prozesuari erreparatuz, bere gaitasunei egokitzen zaizkion helburuak lortzeko lan egiten du, bai tutorearekin baita laguntza irakasleekin ere, bere Norbanako Curriculum Egokitzaipena betetzeko. Ikasle honen presentziak gelan bestalde, gainontzekoen zenbait gaitasun garatzeari laguntzen dio, aniztasunaren trataerari eta errespetu zein berdintasuneko jarrerari loturikoak hain zuzen ere.

3.2. Esku hartzearen ebaluazioa

Lan honen bigarren puntuan zehazturiko helburuak lortu eta hipotesiak bete diren baieztatzeko, ikasleek esku-hartze didaktikoak iraun duen bitartean izandako ongizate subjektiboaren eta emozioen inguruko balorazioa egingo da. Datuak ahalik eta errealean izan daitezten, hiru iturri ezberdin baliatuko dira horiek jasotzeko: ikasleak, proposamena aurrera eraman duen irakaslea eta ikasleen gurasoak.

Ikasleek, *Nola sentitu naiz?* Jarduera burutuko dute saio bakoitzaren amaieran, horren bidez ekintzek haiengan izandako eragin emozionala agerraraziko dutelarik (Ikus I. Eranskina: *Nola sentitu naiz?*). Horrez gain, proposamenarekin amaitu bezain laster, ikasle bakoitzak unitatean zehar egindako lana ebaluatuko du. Horretarako aipatutako jarduera horren dinamika bera erabiliko da, ikasleek sentitutakoa laburbiltzen duen emozioa islatuko dutelarik. Azken ekintza honek, esku-hartzearen laburpen emozionala eskainiko du, egindako lanak ikasleei eta euren gaitasunei erantzun dion agerraraziz.

Irakasleak eta ikasleen gurasoek bestalde, umeezko prozesuan zehar izandako garapen emozionala ezagutzeko bestelako informazioa eskaini dezaketen balorazioak beteko dituzte. Hori lortzeko ikasleen sentimenduei erreparatzen dioten irizpideak biltzen dituzten fitxak helaraziko zaizkie. Gurasoei zuzendurikoak ikasleek ikastolatik kanpo izan ohi duten ikasitakoarekiko, gelakideekiko zein irakasleekiko jarreraren inguruko informazioa biltzen du, esku-hartzea hasi aurretiko egoerari erantzuten hasieran eta prozesuren eraginez izandako aldaketari erantzuten proposamen didaktikoarekin amaitu ondoren (Ikus II. Eranskina: Gurasoen baloraziorako fitxak). Irakaslearen erantzunak bilduko dituzten errubrikek bestetik, ikasleek gelan izan ohi duten eta prozesuan zehar izan duten jarrerak alderatuko dituzte (Ikus III. Eranskina: Irakaslearen baloraziorako fitxak).

4. Lanaren garapena

4.1. Prozesua

Lana burutu eta ezarritako helburuak lortzeko, gaiaren inguruko informazio biltzea egitea izango da lehenengo pausua eta osatutako marko teorikoan oinarrituta esku-hartzearen hasierako planifikazioa egitea.

Horrekin batera, ikasleen alderdi emozionala ezagutzeko hasierako ebaluazio bat egingo da, irakaslearen eta ikasleen gurasoen laguntzaz. Bide honetatik, esku-hartzea burutu aurreko ikasleen egoeraren inguruko behaketa edo balorazio fitxa bat betetzea eskatuko zaie, ikasle bakoitzaren egoera pertsonala ezagutzeko. Prozesuaren amaieran, fitxa bera bete beharko dute, horrela, emaitzak alderatuz, egindako esku hartzearen inguruko hausnarketa eta ondorioak atera ahal izateko (Ikus II. Eranskina: Gurasoen baloraziorako fitxak eta III. Eranskina: Irakaslearen baloraziorako fitxak).

Aldi berean, ikasle taldea, gelako giroa eta tutorearen lan egiteko moduari hurbilduz, proposamena aurrera eramango den testuingurua ezagutuko da, gelan bertan lau bat aste igaroz. Denbora horretan egindako behaketen bidez, planifikaturikoa taldeari behar bezala egokitu ahal izango zaio, ikasleen ezaugarriei hain zuzen ere, haien adimenak ezagutu eta aztertzei aukera izango baita. Ume bakoitzaren profila hein batean deskribatu ahal izateko behaketa fitxa bat erabiliko da, batez ere bakoitzak duen adimenen konposizioa ezagutzeko (Ikus IV. Eranskina: Ikasleen adimenen profila).

Taldea eta testuingurua ezaguturik, esku-hartzearen behin-betiko planifikazioa egin eta aurrera eramango da. Esku-hartzea osatzen duten jardueren bitartez ikasleen adimen guztiak landu nahi dira, bakoitzari bere gaitasunak zailtasunak gainditzeko tresnatzat erabiltzen lagunduz. Modu berean, giza gorputzari eta nutrizioari loturiko edukiak landuko dira.

Taula I: Esku-hartzearen edukiak

1. Giza gorputza	2. Elikadura	3. Ohitura osasuntsuak
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gorputz atalak. ▪ Giza gorputzeko aparatu eta sistemak. ▪ Giza gorputzeko organo nagusienak. ▪ Digestio aparatua eta digestio prozesua. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elikagai motak. ▪ Elikagaien piramidea 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kirolak. ▪ Garbitasun ohiturak. ▪ Elikadura orekatua

Horiek jorrazteko, 19 jarduera burutuko dira (Ikus V. Eranskina: Jardueren deskribapenak). Hona hemen saioen antolaketa:

Taula II: Saioen antolaketa

SAIOAK	JARDUERAK	SAIOAK	JARDUERAK
1.	Gorputza aztertzen	11.	Zein naiz?
2.	Gorputza barrutik (I)		Elikagaiekin jolasean
3.	Gorputza barrutik (II)	12.	Piramidea eraikitzen
4. ETA 5.	Eskeletoa eraikitzen!	13.	Sukaldeko soinuak
6.	Gorputza barrutik (III)	14.	Sukaldariak gara!
7. ETA 8.	Digestio aparatua	15.	Platerrak osatzen!
9.	Zenbat elikagai!	16.	Ohitura osasuntsuak
	Elikagaien jatorria	17.	Zoru jolasa
10.	Elikagaien piramidea	18.	123 erantzun
			Tablero jolasa

Jarduera guztiek ikasleen parte hartze aktiboa bultzatzeko helburua dute, ekintzaren bidez ikas dezaten eta horrela ikasketa esanguratsua bilatzeko. Jarduera gehienak

gainera talde lanean oinarritzen dira, talde kooperazioan, modu horretan ikasleek gainontzekoen gaitasunetatik ere ikas dezaten. Horretarako, taldeak heterogeneoak izango dira, adimenei zein gaitasunei dagokionez, eta kide guztien parte hartze aktiboa bultzatuko da uneoro.

Esku-hartzeak hartuko dituen saioetan zehar bestalde, taldearen dinamika bideratzeko arau nagusi bat gehituko zaie ikasleek jadanik ezagutzen dituzten elkarbizitza arauai: “Taldeari hitz egiteko aulki gainean”. Honi jarraituz, ikasleak ekarpen bat egiterakoan altxatu eta aulkira igo beharko dira, hortik hitz egingo dutelarik. Modu honetan ikasleen hitzen garrantzia handiagotzea bilatzen da, kide guztiek hizlaria ikustean honek bere burua garrantzitsu sentituko duelakoan, baita egin beharreko ekarpena ere. Arau berri hau irakaslearen gidaritzaren menpe egongo da nolabait, gelan egin ohi duten bezala irakaslearen baimena behar izango dutelarik hitz egiteko.

Horrez gain, esku hartzean zehar *Ene, zenbat dakigun!* Txokoa martxan egongo da ikasgelan. Honako honek, proposamen didaktikoarekin aurrera egin hala ikasitakoaren inguruko informazioa bilduko du: edukien laburpenak, irudiak, egindako lanak, irakasleak zein ikasleek ekarritako material osagarria, e.a. Txoko honen bidez ikasleek ikasitakoa uneoro begi-bistan izateaz gainera, burututako prozesuaren jabe izatea bilatzen da, saioek aurrera egin ahala euren ezagutza eta gaitasunak ere garatzen direla ulertaraztea. Txokoaz gainera ikasleek esku-hartzean zehar egindako lanak gelan edo ikastolako pasabidean eskegiko dira, euren lanak baliagarriak direla senti dezaten.

Esku-hartzea osatzen duen saio bakoitzaren amaieran *Nola sentitu naiz?* jarduera burutuko dute ikasleek, egindako jardueren balorapena eginez (Ikus I. Eranskina: Nola sentitu naiz?). Jarduera honen emaitzak, esku-hartzearen ebaluazioaren enborra izango dira, erabilitako metodologiak ikasleen ongizate subjektiboan eta emozioetan izan duen eraginaren isla izango baita.

Esku-hartzea burutu ondoren, horren ebaluazioa egingo da. Horretarako, batetik ikasleek bereganaturiko edukiei dagokien ebaluazioa egingo da (Ikus VI. Eranskina: Edukien ebaluaziorako errubrika). Bestetik balorapen emozionala egingo da. Horretarako, irakasleari eta gurasoei balorazio fitxa helaraziko zaie berriro ere eta ikasleek amaierako balorapen emozionala egingo dute aurreko balorapenetan baliaturiko teknika berdina jarraituz, baina oraingoan esku-hartze didaktiko osoaren laburpenari

erantzunez. Emaizta guztiak kontutan izanik, prozesuan zehar lortutakoaren inguruko hausnarketa egingo da, hasieran ezarritako helburuak lortu diren baieztatuz.

4.2. Datuen tratamendua

Aurreko puntuetan azalduenez, hiru dira adimen aniztasuna gelan baliatzearen eta ikasleen ongizate emozionalaren arteko erlazioaren inguruko datuak biltzeko erabiliko diren tresnak: ikasleen balorapen emozionala (*Nola sentitu naiz?* jarduera), gurasoek beteriko balorazio fitxak eta irakasleak beterikoa. Hirurek proposamen didaktikoan baliatutako metodologiak ikasleengan izan duen eraginaren inguruko informazioa biltzea dute helburu.

Lehenengoa prozesuan zehar ikasleek izan duten garapen edo aldaketa emozionala zuzenean aztertzeko baliagarria da. *Nola sentitu naiz?* jardueraren bidez lortutako emaitzek ikasle bakoitzaren eboluzioa islatzen dute, baita taldean orokorrean eman diren sentimenduak ere. Datu horiek aztertzean, taldearen emaitzak izango dira kontuan, jarduera bakoitzak ikasleengan izan duen eragina ezagutzeko. Horrez gain, ikasleen eboluzioak alderatuko dira, horien arteko ezberdintasunak aztertu eta ondorioak ateratzeko.

Gurasoen baloraziorako fitxak haien artean konparatuko dira, prozesuan zehar aldaketa nabarmenik eman den ikusteko. Dena den, ikasleekin buruturiko proposamen didaktikoa izanik lanaren enborra, amaierako balorazioen emaitzak erabiliko dira prozesuaren ondorioak ateratzeko, hau da, ikasleak orokorrean nola sentitu diren ikusteko.

Irakaslearen balorazioari dagokionez, hasierako balorazioa oinarri moduan bakarrik erabiliko da, alderdiren batean aldaketa deigarririk gertatu den aztertzeko. Esku-hartze didaktikoak iraun bitartean egindako behaketen ondorioz lortutako datuak izango dira beraz lanaren emaitzak, horietan oinarrituz erabilitako metodologiaren eragina aztertuko delarik. Hala ere, hasierako eta amaierako balorazioak izateari esker ikasle bakoitzaren eta taldearen eboluzio ezagutu ahal izango dira oraingoan ere.

Datu guzti hauek subjektiboak izanik erabat errealak izan ez daitezkeen arren, prozesuan izandako garapena ezagutzeko informazio baliagarria dira, ikuspuntu ezberdinak islatzen dituztelako. Bildutako datu guztiak ikasle bakoitzaren zein taldearen

garapena ezagutzeko baliagarriak dira, taldean batez bestean eman diren emaitzak ondorioztatzeko bidea eskainiko dutelako.

5. Emaitzak eta ondorioak

Ikasleen, gurasoen eta irakaslearen balorazioei erreparatuz, Urretxindorra Ikastolako Lehen Hezkuntzako 1.A gelako ikasle taldearekin aurrera eramandako proposamen didaktikoaren emaitzak positiboak izan dira. Ikasleak gustura parte hartu dute, ikasitakoarekiko jarrera ona garatu dute eta eskatzen zitzaiena betetzeko gai sentitu dute euren burua.

Buruturiko prozesuaren protagonista izan diren ikasleek, bidean zehar bizi izandakoa baloratu dute egunero, egindako jarduerak nola sentiarazi dituzten adieraziz. Hona hemen saioetan lortutako emaitzak:

Taula III: Nola sentitu naiz? balorazioaren emaitzen laburpena

	Berdea jarri duten ikasleak	Horia jarri duten ikasleak	Gorria jarri duten ikasleak	EZ ETORRIAK
1. SAIOA	% 72	% 8	% 16	% 4
2. SAIOA	% 56	% 24	% 4	% 16
3. SAIOA	% 72	% 12	% 0	% 16
4. SAIOA	% 84	% 12	% 0	% 4
5. SAIOA	% 100	% 0	% 0	% 0
6. SAIOA	% 92	% 4	% 0	% 4
7. SAIOA	% 84	% 12	% 0	% 4
8. SAIOA	% 84	% 12	% 0	% 4
9. SAIOA	% 76	% 12	% 4	% 8
10. SAIOA	% 76	% 12	% 4	% 8
11. SAIOA	% 76	% 12	% 4	% 8
12. SAIOA	% 84	% 4	% 0	% 8
13. SAIOA	% 84	% 12	% 0	% 4
14. SAIOA	% 92	% 0	% 4	% 4
15. SAIOA	% 88	% 4	% 0	% 8
16. SAIOA	% 88	% 8	% 0	% 4
17. SAIOA	% 96	% 4	% 0	% 0
18. SAIOA	% 84	% 12	% 0	% 4
19. SAIOA	% 92	% 4	% 0	% 4
EMAITZAK	% 88	% 10	% 2	

Taulan argi ikus daitekeenez, saio orotan gailendu da berdea modu nabarmenean, sentimendu eta emozio positiboak islatzen dituen kolorea. Kontuan izan beharra dago ikasleen erantzunak baldintzatu ahal izan dituzten aldagaiak asko direla, oraindik ere emozioak, gertakariak eta gorputza banaturik ulertzeko gai ez direlako. Horietariko batzuk prozesuan zehar antzeman dira, gaixorik dagoen umearen edota jolastorduan

lagunen batekin liskarra izan duen umearen erantzuna negatiboagoa izan baita, batez ere hasierako saioetan. Saioek aurrera egin ahala ordea, balorazioaren funtsa ulertu dute ikasleek eta aldagai horiek alde batera uzteko gai izan dira, saioan zehar egindakoak nola sentiarazi dituen adieraziz.

Ikasleen erantzunek esku-hartzea iraun bitartean gelan nagusitu den giro positiboa islatzen dute. Irakaslearen esku-hartzearen amaierako balorazioak horixe bera adierazten du:

Taula IV: Irakaslearen amaierako balorazioaren emaitzen laburpena

Irizpideak	Ikasle kopurua (%-etan)
Modu aktiboan parte hartu du.	% 100
Taldean ondo lan egin du.	% 85
Ikaskideekin ondo moldatu da.	% 95
Laguntza eskaintzeko prest egon da.	% 60
Lanak egiteko gai sentitu du bere burua.	% 100
Baloratua sentitu da gelan.	% 85
Pozik eta zoriontsu egon da.	% 100

Modu berean, gurasoek ere gelan nagusitu den giro positiboa antzeman dute, baita horrek ikasleen emozioengan izandako eragina ere. Euren seme-alabei buruzko irizpide ezberdinak 1-etik 5-era bitarteko puntuazioarekin baloratzea eskatu zaie (1 puntuazio baxuena izanik eta 5 altuena), esku-hartzearen ondoren honako hau erantzun dutelarik:

Taula V: Gurasoen amaierako balorazioen emaitzen laburpena

Irizpideak	Emaitzak		
	5-4	3	2-1
Pozik eta zoriontsu joan da ikastolara.	% 96	% 4	% 0
Zoriontsu egon da ikastolari buruz hitz egitean.	% 92	% 8	% 0
Gelan egindako ekintzen inguruan modu positiboan hitz egin du.	% 100	% 0	% 0
Baloratua sentitu da gelan.	% 92	% 8	% 0
Gelako lanak burutzeko gai sentitu du bere burua.	% 88	% 8	% 4

Ikus daitekeenez, irakasleak zein gurasoek egindako balorazioen emaitzek umeez egindakoekin bat datoz eta esku-hartzeak iraun bitartean gelan nagusitu den giro positibo eta zoriontsua islatzen dute.

Emaitzak interpretatzerakoan oso kontuan izan beharra dago denbora gutxi iraun duen prozesua izan dela eta beraz zaila izan daitekeela ikasleen jarreraren aldaketa deigarririk antzematea. Gainera, aurretik esan bezala, asko dira umeengan eta euren emozio zein

jarreretan eragina izan dezaketen aldagaiak, iturri ezberdinen bidez lortutako emaitza hauek baldintzatu ahal izan dituzten aldagaiak hain zuzen ere.

Edonola ere, lortutako emaitzak positiboak izan direla esan daiteke eta zenbait alderdi eta umeren kasuan aldaketak eman direla frogatzen dutela.


Irakaslearen balorazioak ikasleen parte hartze aktiboa bermatu dela ikustarazten dute, baita taldean lan egin izanaren eragin positiboa ere. Batetik, ikasleen parte hartzea bermatu da, ikasleen interesa piztea lortu duten jarduera aktiboen erabili direlako. Euren ezaugarri naturalei egokitzen zaizkien jarduerak izan dira, besteak beste mugimendua, material manipulagarriak zein jolasak baliatu dituztenak. “Taldeari hitz egiteko aulki gainean” arauak gainera, ikasle askoren parte hartzeko grina piztu du, momentu horietan klaseko protagonista nagusienak sentitu direlakoan. Bestetik, taldean lan egiteak ikasleen arteko elkarreragina sustatu du, besteongandik ikasteaz gainera kideen laguntza jasotzeko aukera erraztuz eta gelako lan giroa indartuz. Taldeetan oinarritutako dinamikak gainera, ikasleen laguntza eskaintzeko prestutasuna garatzeari lagundu dio, batez ere irakurketa eta idazketari loturiko lanak egiterakoan (%20-ko hazkuntza ikus daiteke irakaslearen balorazioak alderatuz gero) (Ikus VII. Eranskina: Esku-hartzearen emaitzen laburpena).

Ikasleen sentimenduak dira dena den lan honen oinarria eta irakaslearen zein gurasoen hasierako eta amaierako balorazioak alderatzean horri loturiko alderdietan ikus daiteke aldaketarik nabarmenena.

Alde batetik, umeak gelan eskatutakoa betetzeko gai sentitu dira esku hartzea osatu duten jardueretan zehar (%40-ko eta %14-ko hazkuntza hurrenez hurren). Litekeena da taldeetan sortu den laguntza eta errespetu giroa izatea horren arrazoi nagusiena. Planteaturiko metodologia aktiboak gainera, ikasle batzuentzako oztopo izan daitezkeen zenbait alderdi saihestu ditu, edukietara heltzeko eta jarduera ezberdinak burutzeko gaitasun ezberdinak mugiaraziz. Horrela ikasleek jadanik dituzten gaitasunak baliagarri eta lagungarri sentitu dituzte eskatzen zitzaiena betetzeko eta behar izan dutenek, taldekideen laguntza onartu eta eskertu dute uneoro. Dirudienez, talde-lanean aritzeko ohiturarik izan ez arren (aldibereko elkarreragina bermatzen duen talde-lanean aritzeko ohitura gutxienez) talde dinamika eta lan giroa bermatzearen beharra ulertu dute ikasleek, baita taldearen elkarreragina (laguntza, ekarpenak, iritzi aniztasuna...) euren ikasketa prozesurako aberasgarriak izan daitezkeela ere.

Beste alde batetik, ikasle gehienek euren burua baloratua sentitu dute eta pozik eta zoriontsu egon dira gelan proiektuak iraun duen bitartean, kasu hauetan ere emaitzek gora egin dutelarik (%10 eta %5 gutxi gora behera).

Esan bezala, gelan errespetuzko giro zoriontsua sortu da, ikasleak ekarpenak egiteko askatasuna sentitzea bilatzen zuena. Giro honek ikasleen arteko kritikak gutxiagotu ditu, batez ere erritmo eta gaitasun ezberdintasunei dagozkienak, hauek ez baitira lanerako oztopo izan eta uneoro errespetatu egin direlako. Horrela ikasle guztiak taldearen (klasearen) parte sentitu dira eta egindako lan eta ekarpen oro baliagarria dela ulertarazi zaie prozesu osoan zehar. Horrek parte-hartzaile sentiarazi ditu, klasearen parte, dinamiken parte, euren ikasketa prozesuaren protagonista. “Taldeari hitz egiteko aulki gainean” arauak asko lagundu dio honi, umeei euren ekarpenak eta horrekin euren burua garrantzitsu sentitu dituztelako aulki gainean, baita euren burua ere. Hezkuntza Premia Berezidun ikaslearen kasuan izan da ziurrenik deigarrien parte sentitze hori, ohi duena baino askoz denbora gehiago eman baitu taldearekin batera lanean eta gainontzeko kideekin elkarreaginean, hori izan daitekeelarik ikastolara zoriontsuago etorri izanaren arrazoia.



Irudia 1: HPB ikaslearen gurasoen erantzuna

Laburbilduz, edukietara ailegatzeko bide ezberdinak erabiltzeak (soinuak, zentzumenak, mugimendua, jolasak ...) ikasleen gaitasun ezberdinak mugiaraztea eragin du, ikaskuntza prozesua erraztuz eta ikasleak euren burua baliogarri sentitzea eraginez. Gainera, euren interes eta ezaugarriei erantzun dien lan egiteko modua erabili denez erosoago eta ikasketa prozesuarekiko motibatuago sentitu dira. Litekeena da irakurketa eta idazketa gutxi landu izanak ikasleen emozioetan eragina izan duen faktore garrantzitsua izatea, ikasle askorentzako oztopo handi bat saihestu egin delako.

Nolanahi ere, ikasle oro ailegatu da unitatean aldezturik zehazturiko ezagutza minimoetara eta baloratu, gai eta zoriontsu sentitu da prozesuan zehar. Gainera, gustura ikasteak eta ikasi izanaren sentimenduak, ikasitako irakasteko edota horren inguruan

- Bahón, J. (2014). Enseñar a pensar. *Rítica*, 933, 63-68.
- Coll, C., Palacios, J. eta Marchesi, A. (2001). *Desarrollo psicológico y educación. 2. Psicología de la educación escolar*. Madril: Alianza editorial.
- Crozier, W. R. (2001). *Diferencias individuales en el aprendizaje. Personalidad y rendimiento escolar*. Madril: Narcea.
- Ferrándiz, C., Prieto, M. D., Bermejo, M. R. eta Ferrando, M. (2006). Fundamentos psicopedagógicos de las inteligencias múltiples. *Revista española de pedagogía*, 233, 5-20.
- García, A. J. (2014). Inteligencias múltiples y motivación. *Rítica*, 933, 89-90.
- Gardner, H. (1995). *Las inteligencias múltiples. La teoría en la práctica*. Bartzelona: Paidós.
- Goleman, D. (1996). *Inteligencia emocional*. Bartzelona: Kairós.
- Gomis, N. (2007). *Evaluación de las inteligencias múltiples en el contexto educativo a través de expertos, maestros y padres*. (Doktorego tesia). Alicanteko Unibertsitatea.
- Gutiérrez, A. (2014) Inteligencia, emoción y cerebro. Las claves neurocientíficas de la enseñanza y el aprendizaje. *Rítica*, 933, 43-47.
- Guzmán, B. eta Castro, S. (2005). Las inteligencias múltiples en el aula de clases. *Revista de Investigación*, 58, 177-210.
- L'Ecuyer, C. (2015). *Educación en la realidad*. Bartzelona: Plataforma Editorial.
- Luca, S. L. (2004). El docente y las inteligencias múltiples. *Revista Iberoamericana de Educación*, 2015-11-28an hartua, hemendik: <http://www.rieoei.org/deloslectores/616Luca.PDF>
- Macías, M. A. (2002). Las Múltiples Inteligencias. *Psicología desde el Caribe*, 10, 27-38.
- Mora, J.A. eta Martín, M. L. (2007). La concepción de la inteligencia en los planteamientos de Gardner (1983) y Sternberg (1985) como desarrollos teóricos precursores de la noción de inteligencia emocional. *Revista de Historia de la Psicología*, 28(4), 67-92.
- Palacios, J., Marchesi, A. eta Coll, C. (1999). *Garapen Psikologikoa eta Hezkuntza-I. Psikologia ebolutiboa*. Zarautz: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Prieto, M. D., Ferrándiz, C. eta Ballester, P. (2001). Evaluación de la competencia cognitiva desde la teoría de las inteligencias múltiples. *Enseñanza*, 19, 91-111.
- Prieto, M. D., Navarro, J.A., Villa, E., Ferrándiz, C. eta Ballester, P. (2002). Estilos de trabajo e inteligencias múltiples. *XXI, Revista de Educación*, 4, 107-118.
- Sáenz-López, P. eta Díaz, P. (2012). La educación de la felicidad. *Revista Wanceulen E. F. Digital*, 9, 25-36.
- Salmerón, P. (2002). Evolución de los conceptos sobre inteligencia: planteamientos actuales de la inteligencia emocional para la orientación educativa. *Educación XXI: Revista de la Facultad de Educación*, 5, 97-122.
- Shannon, A. M. (2013). La Teoría de las Inteligencias Múltiples en la enseñanza del español. Salamancako Unibertsitatea.
- Vargas, A. S. (2004). Antes y después de las inteligencias múltiples. *Revista Electrónica Educare*, 7, 91-104.
- Vázquez, N. (2014). La teoría de las inteligencias múltiples de Howard Gardner. *Rítica*, 933, 57-62.
- Velado, L.A. (2014). Filosofía y psicología de la felicidad: aplicaciones educativas. *Educación y futuro digital*, 9, 2-16.

ERANSKINAK

I. Eranskina: Nola sentitu naiz?

Nola sentitu naiz?	
Denbora: Saio bakoitzaren azken 5-10 minutuak	Baliabideak: - Balorapen emozionalerako txantilioiak - Hiru kolore ezberdinetako tenpera apur bat

Saio bakoitzari amaiera emateko ikasleek bizitakoaren balorapen emozionala egingo dute. Horretarako, irakaslearen laguntzaz saioan zehar egindakoa birgogoratu eta ume bakoitzak sentitu duenaren inguruko hausnarketa egingo du. Ondoren, bere sentimendu eta emozioak islatzeko erabiliko diren hiru koloreak aurkeztuko zaizkie, berdea, horia eta gorria esaterako, bakoitzak zein emozioei erreferentzia egiten dien ikasleekin adostuz. Hona hemen azalpena eman eta koloreak aurkezteko irakasleari lagungarri izan ahal zaion diskurtsoaren adibide bat:


“Berdea ondo egon garela adierazteko erabiliko dugu: egin duguna gustatu zaigu? Irribarretsu egon gara? Alai? Lasai eta gustura egin dugu lan? Gai sentitu gara ariketak egiteko? Zoriontsuak izan gara? Orduan berdea erabiliko dugu.

Kili-kolo egon bagara horia aukeratuko dugu, egin dugun guztia gustatu ez bazaigu, momenturen baten desatsegin sentitu bagara, oso pozik egon ez bagara, e.a.

Azkenik gorria txarto sentitu garela esateko balioko digu: haserre egon gara? Triste? Egindako lana ez zaigu gustatu? Torpe sentitu gara lanak egiterakoan? Ez gara gai sentitu? Ba kolore gorria erabiliko dugu.”

Esanahiak ulertu dituztenean, ikasle bakoitzak atzamar bat aukeratutako kolorean sartu eta bere hatz-marka jarriko du dagokion lekuan (txantilioean).

Eguna	Ikaslea (zenbk)	1	2	5	7	11	14	16	25
ASTELEHENA									
ASTEARTEA									
ASTEAZKENA									
OSTEGUNA									
OSTIRALA									



II. Eranskina: Gurasoen baloraziorako fitxa

- Hasierako baloraziorako fitxa

IKASLEAREN IZENA: _____

Zuen seme-alabaren balorapen emozionalerako galdetegia / Cuestionario para la valoración emocional de vuestro hijo/a

- Baieztapenak 1-etik 5-era baloratu, 1 minimoa eta 5 maximoa izanik / Valorar las siguientes afirmaciones del 1 al 5, siendo 1 el mínimo y 5 el máximo.

Gure seme-alaba(k) normalean... / Nuestro hijo/a habitualmente...

... pozik eta zoriontsu joan ohi da ikastolara ... <i>va contento y feliz a la ikastola</i>	1 2 3 4 5
... zoriontsu egoten da ikastolari buruz hitz egiten duenean ... <i>esta contento cuando habla de la ikastola</i>	1 2 3 4 5
... gelan egindako ekintzen inguruan modu positiboan hitz egiten du ... <i>habla positivamente de las actividades hechas en clase</i>	1 2 3 4 5
... ikaskideei/lagunei buruz pozik hitz egiten du ... <i>habla contento acerca de sus compañeros/as y amigos/as</i>	1 2 3 4 5
... hitz egiten du (modu positiboan) A. tutoreari buruz B. praktiketako irakasleari buruz C. beste irakasleei buruz ... <i>hace referencia (positivamente)</i> A. <i>a la tutora</i> B. <i>al profesorado de prácticas</i> C. <i>a otros profesores</i>	A. 1 2 3 4 5 B. 1 2 3 4 5 C. 1 2 3 4 5
... baloratua sentitzen da gelan ... <i>se siente valorado en clase</i>	1 2 3 4 5
... gelako lanak burutzeko gai sentitzen du bere burua ... <i>se siente capaz frente al trabajo de clase</i>	1 2 3 4 5

- **Amaierako baloraziorako fitxa**

IKASLEAREN IZENA: _____

Zuen seme-alabaren balorapen emozionalerako galdetegia / Cuestionario para la valoración emocional de vuestro hijo/a

- Baieztapenak 1-etik 5-era baloratu, 1 minimoa eta 5 maximoa izanik / *Valorar las siguientes afirmaciones del 1 al 5, siendo 1 el mínimo y 5 el máximo.*

Gure seme-alaba(k) normalean... / *Nuestro hijo/a habitualmente...*

... pozik eta zoriontsu joan ohi da ikastolara ... <i>va contento y feliz a la ikastola</i>	1 2 3 4 5
... zoriontsu egoten da ikastolari buruz hitz egiten duenean ... <i>esta contento cuando habla de la ikastola</i>	1 2 3 4 5
... gelan egindako ekintzen inguruan modu positiboan hitz egiten du ... <i>habla positivamente de las actividades hechas en clase</i>	1 2 3 4 5
... ikaskideei/lagunei buruz pozik hitz egiten du ... <i>habla contento acerca de sus compañeros/as y amigos/as</i>	1 2 3 4 5
... hitz egiten du (modu positiboan) D. tutoreari buruz E. praktiketako irakasleari buruz F. beste irakasleei buruz ... <i>hace referencia (positivamente)</i> D. <i>a la tutora</i> E. <i>al profesorado de prácticas</i> F. <i>a otros profesores</i>	D. 1 2 3 4 5 E. 1 2 3 4 5 F. 1 2 3 4 5
... baloratua sentitzen da gelan ... <i>se siente valorado en clase</i>	1 2 3 4 5
... gelako lanak burutzeko gai sentitzen du bere burua ... <i>se siente capaz frente al trabajo de clase</i>	1 2 3 4 5

Azken asteetan ezberdintasunik nabaritu dut nire semearengan/alabarengan? / *En estas últimas semanas ¿he notado diferencia en mi hijo/hija?*

BAI/SI

EZ/NO

Zertan? / *¿En qué?*

III. Eranskina: Irakaslearen baloraziorako fitxa

- **Hasierako baloraziorako errubrika**

	Modu aktiboan parte hartzen du normalean	Taldean ondo lan egin ohi du	Ikaskideekin ondo moldatzen da orokorrean	Laguntza eskaintzeko prest egon ohi da	Lanak egiteko gai sentitzen du normalean bere burua	Baloratua sentitu ohi da lan egiterakoan	Pozik eta zoriontsu egon ohi da
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							
10							
11							
12							
13							
14							
15							
16							
17							
18							
19							
20							
21							
22							
23							
24							
25							

IV. Eranskina: Ikasleen adimenen profila

- Adimenen profila egiteko erabilitako irizpideak


Orientación Andújar. (2015). *Perfil de Inteligencias Múltiples para educación infantil*. 2016-05-15ean berreskuratua, hemendik: <http://www.orientacionandujar.es/wp-content/uploads/2015/04/Perfil-de-Inteligencias-multiples-para-educacion-infantil.pdf>

- Profilak irudikatzeko txantiloiak

EL PERFIL DE IIMM


INTELIGENCIAS	RESPUESTAS A LAS PREGUNTAS										suma
	0=nunca 1=a veces 2=casi siempre 3=siempre										
INTELIGENCIA INTRAPERSONAL											
INTELIGENCIA INTERPERSONAL											
INTELIGENCIA LINGÜÍSTICA											
INTELIGENCIA MATEMÁTICA											
INTELIGENCIA VISUAL											
INTELIGENCIA CORPORAL											
INTELIGENCIA MUSICAL											
INTELIGENCIA NATURALISTA											

EL PERFIL DE IIMM



WWW.ORIENTACIONANDUJAR.ES

EL PERFIL DE IIMM



Iturria: Orientación Andújar. (2014). *Perfil de Inteligencias Múltiples Orientación Andújar*. 2016-05-15ean berreskuratua, hemendik: <http://www.orientacionandujar.es/wp-content/uploads/2014/07/perfil-de-inteligencias-multiples-orientacion-andujar.pdf>

- Ikasle baten adimenen profilaren adibidea



V. Eranskina: Jardueren deskribapena

Jardueraren izena	Deskribapena	Helburuak	Adimenak	Baliabideak	Iraupena
Gorputza aztertzen	<p>Irakasleak giza gorputzaren inguruko galderak luzatuko ditu, gizakien arteko aniztasun fisikoa agerrarazten duten argazkien laguntzaz. Horrekin batera, bere itxura fisikoarengatik inor ez dela baztertua edo ezberdin tratatua izan behar azalduko du.</p> <p>Ondoren honako galdera hau luzatuko die irakasleak ikasleei: <i>“Zer gertatuko litzateke gure gorputza ezberdina izango balitz? Zer gertatuko zen bi besoren ordeztu izango bagenitu?”</i>. Galderarekin batera horren adibide bat eskaini dezake, kasu honetan sei beso dituen emakume edo gizon baten irudia. Ezberdintasun horrek suposatuko litzuzkeen aldaketan inguruan arituko dira (kamiseta ezberdinak beharko ditu, eskubaloi jokalarik bikaina izango da, muralak egiteko trebetasuna izango du, e.a.). Jarduerarekin amaitzeko ikasleek giza gorputzaren irudia egin beharko dute, oraingoan ezberdintasuna haiek sortuko dutelarik.</p> <p>Denbora egonez gero, bakoitzak (edo taldeko gutxi batzuek) bere irudiaren deskribapena egin dezake gelaren aurrean, bere “gizakiak” ezberdin duena aipatuz eta horrek eragingo dituen aldaketak azalduz</p>	<p>Ikasleen aurre-ideiak ezagutzea</p> <p>Sormena eta irudimena piztea</p> <p>Giza gorputzaren ezaugarriak antzeman eta ezagutzea.</p>	<p>Interper- tsonala</p> <p>Intraper- tsonala</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Naturalista</p>	<p>Gorputza- ren argazkiak</p> <p>Irudiaren adibide bat</p> <p>Orri zuriak eta margoak</p>	55'
Gorputza barrutik (I)	<p>Irakaslea giza gorputzaren irudiak erakusten joango da, aparatu edo sistema bakoitzeko bat, eta ikasleei horren inguruan dituzten ezaguerak plazaratzeko aukera eskainiko die. Horrekin batera, gure gorputzeko sistema nagusien inguruko azalpen txikia emango du (aparatuaren izena, zertarako balio du, organo nagusien izenak, e.a.) beti irudia baliatuz, ikasleek euren gorputzaren funtzionamendua ezagutu dezaten.</p> <p><u>APARATUAK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Lokomozio-aparatua (muskuluak eta hezurdura) - Digestio-aparatua - Arnasketa-aparatua - Irantz-aparatua - Zirkulazio-aparatua - Nerbio-sistema - Ugaltze-aparatua 	<p>Giza gorputzaren funtzionamendua ezagutzea</p> <p>Giza gorputzaren aparatuen funtzio nagusiak ezagutzea</p> <p>Gorputzeko organo nagusiak ezagutzea</p>	<p>Hizkuntza</p> <p>Naturalista</p>	<p>Giza gorputza- ren irudiak (aparatuak, sistemak, e.a.)</p>	55'
Gorputza barrutik (II)	<p>Ikasle bakoitzari gorputzaren organoen izenen txartel bana banatuko zaio eta irakurtzeko laguntza behar izanez gero lagundu.</p>	<p>Gorputzeko organo nagusiak</p>	<p>Interper- tsonala</p> <p>Intraper-</p>	<p>Gorputzeko organoen izenen</p>	55'

	<p>Ikasle guztiek txartela irakurri dutenean, klasean barrera sakabanatuko dira. Irakasleak orduan jardueraren nondik norakoa azalduko die, helburua euren txartel berdina duen bikotea topatzea dela esanez. Horretarako klasean barrena mugitu ahal izango dira, baina isiltasuna erabatekoa izan behar du. Horregatik mimika, keinuak, izango dira bikotea topatzeko izango duten baliabide bakarra.</p> <p>Ikasle guztiek euren bikotea topatu dutenean, bikoteka gainontzeko ikasleei egokitu zaien gorputzeko organoa zein den erakutsiko diete, berriro ere mimika soilik baliatuz.</p>	<p>ezagutzea</p> <p>Komunikazioziorako gaitasuna garatzea</p> <p>Komunikatzeko bide ezberdinak ezagutzea eta baliioestea</p>	<p>tsonala</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Kinestesi-koa</p> <p>Espaziala</p> <p>Naturalista</p>	<p>txartelak</p>	
<p>Eskeletoa eraikitzen!</p>	<p>Ikasle bakoitzari eraikitzeko giza eskeletoaren irudi eta kartulina bana banatuko zaio. Eskeletoaren piezak kartulinan itsatsi eta moztuko dituzte ikasleek . Ondoren, zikaiaren laguntzaz piezetan ageri diren zuloak egingo dituzte, enkuadernadoreen bidez eskeletoa eraikitzeko beharrezko zuloak.</p> <p>Eskeletoa eraiki dutenean, ikasle bakoitzak eskura izango dituen materialekin (margoak, errotulagailuak, argizariak, e.a.) bere eskeletoa apainduko du.</p>	<p>Giza eskeletoaren propietateak ezagutzea</p> <p>Giza eskeleto bat eraikitzea</p> <p>Sormena piztea</p>	<p>Intraper-tsonala</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Kinestesi-koa</p> <p>Logiko matemati-koa</p> <p>Naturalista</p>	<p>Eraikitzeko giza eskeletoaren irudiaren kopiak</p> <p>Kartulinak</p> <p>Enkuadernadoreak eta zikaiak</p> <p>Margoak, errotulagailuak eta argizariak</p>	<p>1h 55'</p>
<p>Gorputza barrutik (III)</p>	<p>Ikasleak bikoteka lan eginez, aurreko saioetan ikasitakoa erabiliko dute.</p> <p>Bikote bakoitzari gorputzeko atal edo organo baten txartela emango zaio eta horren ezaugarriren bat azaltzen duen esaldi sinple bat osatu beharko dute bien artean.</p> <p>ADIBIDEA: - Sudurra → Sudurrak usaintzeko balio du.</p> <p>Idatzi ondoren, taldeko beste bikotearekin txartela aldatuko dute eta prozesu bera jarraitu organo edo atal berriarekin.</p> <p>Bikote guztiek bi esaldiak osatu dituztenean, ozenean talde handiari irakurriko dizkiete eta zuzenak edo okerrak diren erabakiko du taldeak.</p>	<p>Ikasitakoa aplikatzea</p> <p>Sormena garatzea</p> <p>Esaldi sinpleen osaera lantzea</p>	<p>Interperso-nala</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Naturalista</p>	<p>Gorputzeko organo eta atalen txartelak</p> <p>Bikote bakoitzeko arkatx eta orri bana</p>	<p>55'</p>

<p>Digestio aparatua</p>	<p>Taldeka lan eginez, ikasleek digestio faseak dagokien organoarekin (edo organoekin) lotu beharko dituzte.</p> <p>Horretarako talde-kide bakoitzak irudi bana izango du, alboan faseak idatzita dituena. Bakoitzak bere irudian digestio faseak dagokien aparatua eremuarekin lotuko du eta amaitzerakoan taldekideekin konparatu eta lotura zuzenak zeintzuk diren erabaki beharko dute. Ondoren, talde handian komunean jarriko dira emaitzak.</p> <p>Elikagaiek jarraitzen duten digestio prozesua ezagutu ondoren, ibilbidearen simulazioa egingo da. Jolastokiko zorian digestio aparatua irudikatuko da, ikasleek elikagaiek jarraitzen duten ibilbidearen baretik pasatu ahal izateko tamainakoa.</p> <p>Ikasleak bidearen hormak izango balira kokatuko dira: batzuk ahoa izango dira, beste batzuk hestegorria, urdaila, heste-mehea, heste-lodia eta uzkia. Ikasle batek elikagaien rola hartu eta bidearen erditik pasatuko da, momentu bakoitzean zein tokitan dagoen esanez (“Orain ahoan nago, hestegorritik pasatzen ari naiz, e.a.”). Bidearena egiten duten gainontzeko ikasleek bestalde, dagokien organo edo atalaren mugimendu zein soinuak simulatu beharko dituzte elikadura euren baretik igarotzerakoan.</p>	<p>Digestio prozesua ezagutzea</p> <p>Elikagaiek gure gorputzaren barnean jarraitzen duten ibilbidea simulatzea</p>	<p>Interpersonal</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Kinestesi-koa</p> <p>Espaziala</p> <p>Naturalista</p>	<p>Digestio faseen deskribapen laburrak dituzten digestio aparatuen irudiak</p> <p>Arkatzak</p> <p>Klerak</p>	<p>1h 55'</p>
<p>Zenbat elikagai!</p>	<p>Ikasleak taldeka kokatuko dira eta talde bakoitzari arkatza eta orri bana banatuko zaio. Irakasleak egin beharrekoa azalduko du: taldeko kideek txandaka elikagaiak irudikatu edo idatzi beharko dituzte orrian eta amaitzerakoan orria eta arkatza hurrengo talde-kideari pasatu.</p> <p>Amaitzean proiektorean elikagaien aniztasunaren irudia ikustaraziz, aniztasun horren inguruko hausnarketa sustatuko da gelan, elikagaiek izan ditzaketan propietate ezberdinak aipatuz eta gure osasunean izan dezaketan eragina gogoraraziz.</p>	<p>Elikagaien aniztasuna ohartzea</p> <p>Komunikatze bide ezberdinak ezagutzea eta balioestea</p>	<p>Hizkuntza</p> <p>Kinestesi-koa</p>	<p>Proiektorea eta elikagaien aniztasunaren irudia</p> <p>Talde bakoitzeko arkatza eta orri bana</p>	<p>20'</p>
<p>Elikagaien jatorria</p>	<p>Ikasleak taldeka kokaturik, ume bakoitzari elikagaien txartel bana banatuko zaio. Talde guztien aurrean (arbelean adibidez) elikagaien jatorrien eskema itsatsiko da, nekazaritza, abeltzaintza edo arrantza jatorria duten arabera sailkatzeko balioko duena. Ikasle orok hiru jatorriak zeintzuk diren ulertu dutenean hasiko da jarduerak.</p> <p>Irakasleak egin beharrekoa azalduko die taldeei, kide bakoitzak bere elikagaia eskemaren zein tokitan kokatu behar duen erabaki eta bertan itsatsi beharko duela, beti taldearen laguntza izanik. Horrela, irakasleak jatorri bat aukeratuko du, nekazaritza esaterako, eta nekazaritza</p>	<p>Elikagaien jatorriak ezagutzea</p> <p>Elikagaiak sailkatzea</p> <p>Grafikoen ulermena sustatzea</p>	<p>Interpersonal</p> <p>Kinestesi-koa</p> <p>Logiko-matematikoa</p> <p>Espaziala</p>	<p>Elikagaien txartelak (irudienak)</p> <p>Elikagaien jatorrien (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza) eskema</p> <p>Zeloa</p>	<p>35'</p>

	<p>jatorriko elikagaiak dituzten ikasleak altxatu eta eskemara hurbilduko dira euren txartela dagokion tokian jartzeko.</p> <p>Jarduerarekin amaitzeko, talde handian lortutako elikagaien sailkapena aztertuko da, elikagai guztiak dagokien tokian daudela ziurtatzeko.</p>				
Elikagaien piramidea	<p>Aurreko jardueraren antzekoa izango da, jatorrien arabera sailkatu ordez, elikagaiak euren propietateen arabera sailkatuko dituena.</p> <p>Jarduerari ekin aurretik, irakasleak elikagaien piramidea ezagutzen duten galdetuko die ikasleei eta behar izanez gero, zer den edo zertarako balio duen azalduko dio taldeari. Horrez gain, dieta orekatuarekin duen lotura azalduko du, horren garrantzia goraiatzuz.</p> <p>Ondoren, ikasle bakoitzari elikagaien txartel bana banatu eta piramideko zein taldean kokatu behar duen erabaki beharko du (beti taldearen laguntzaz), irakasleak dagokion taldea aipatzean (frutak eta barazkiak esaterako) piramidera hurbildu eta txartela bere lekuan kokatuko duelarik.</p> <p>Amaieran, ikasleak euren artean eztabaidatuz, jardueran zehar osatu den elikagaien sailkapena egokia den erabaki beharko dute eta behar izanez gero zuzendu.</p>	<p>Elikagaien piramidea ezagutzea.</p> <p>Elikagaien oinarriko propietateak antzematea</p> <p>Elikagaiak sailkatzea</p> <p>Piramide grafikoen ulermena sustatzea</p> <p>Dieta orekatuaren garrantzia ohartzea</p>	<p>Interpertsonala</p> <p>Kinestesi-koa</p> <p>Logiko-matemati-koa</p> <p>Espaziala</p>	<p>Elikagaien txartelak (irudienak)</p> <p>Elikagaien piramide handia</p> <p>Zeloa</p>	55'
Zer naiz?	<p>Ikasleak taldeetan kokatuko dira gelan sakabanaturik. Gelaren erdian fruten txartelak dituen kutxa bat egongo da.</p> <p>Ausaz edo boluntario bat eskatuz, ikasle bat gelaren erdigunera irtengo da eta txartel bat hartuko du kutxatik. Ondoren hitz egin gabe eta soilik mimika erabiliz, gelakideei zein fruta den ulertaraziko die. Frutaren izena asmatzen duen taldeak, taldeko kide bat aukeratuko du erdira irteteko eta hurrengo txartelaren mimika egiteko.</p> <p>(Hasierako txandetan irakasleak laguntza eskaini ahal du, aukeratutako txartela ikusita, klaseari hiru bat aukera emanaz. Adibidea: Sagarra dela asmatu behar badute, “Limoia, banana edo sagarra da?” galdetu dezake.)</p>	<p>Komunikazioarako bide ezberdinak ezagutzea</p> <p>Komunikazioarako gaitasuna garatzea</p> <p>Norbere burua ezagutzea eta gai sentitzea</p>	<p>Interpertsonala</p> <p>Intrapertsonala</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Logiko-matemati-koa</p> <p>Kinestesi-koa</p>	<p>Fruten txartelak (izenenak eta irudienak)</p>	25'
Elikagaiekin jolasean	<p>Ikasleak bi talde handietan banatuko dira eta banaka edo binaka jolastuko dira Lincea eta Dominora.</p> <p>- <u>Lincea</u>: Elikagai askoren irudiak nahasturik dituen tableroa erdian kokatuko da eta jokalaria ingurunean. Tableroarean alboan elikagaien irudien txartelak dituen kutxa bat egongo da.</p>	<p>Elikagaiak identifikatzea</p> <p>Ikusizko pertzepzioa</p>	<p>Interpertsonala</p> <p>Kinestesi-koa</p>	<p>Elikagaien <i>Lincea</i> (tableroa eta txartelak)</p>	30'

	<p>Txandaka jokalariek kutxatik txartel bat aterako dute eta tableroan bilatu beharko dute parte hartzaile guztiek. Elikagaia topatzen duen lehenengoak txartela berarentzat gordeko du. Amaieran fitxa gehien dituen izango da irabazle.</p> <p>- <u>Dominoa</u>: dominoaren fitxa guztiak banatuko dira jokalarien artean, bat izan ezik, jolasari hasiera emateko erabiliko dena. Txandaka jokalariek euren fitxak dominoan kokatzen joango dira, elikagai berdinak (sagarra sagarrarekin, txokolatea txokolatearekin, e.a.) bakarrik kokatu ahal izango direlarik bata bestearen alboan. Fitxa gabe geratzen den lehenengo jokalaria edo bikotea izango da irabazlea.</p> <p>Jolasa amaitzerakoan taldeek jolasa aldatuko dute, horrela guztiak bietan aritu daitezten.</p>	<p>lantzea Arreta lantzea</p>	<p>Logiko- matemati- koa Espaziala Naturalista</p>	<p>Elikagaien irudien dominoa</p>	
<p>Piramidea eraikitzen</p>	<p>Ikasle bakoitzari elikagaien piramide huts bana eta elikagaien irudien fitxa banatuko zaio. Banaka lan eginez, elikagaiak zein piramidea apainduko dute, eskura dituzten materialak erabiliz.</p> <p>Ondoren, elikagaiak moztu eta piramidean kokatu beharko dituzte, aurretik ikasitako sailkapena errespetatuz.</p>	<p>Elikagaiak sailkatzea Elikagaien piramidea ulertzea Piramide grafikoen ulermena sustatzea Dieta orekatuaren garrantzia ohartzea Motrizitate fina lantzea</p>	<p>Intrapertso- nala Logiko- matemati- koa Kinestesi- koa Espaziala</p>	<p>Elikagaien piramide hutsak Elikagaien irudiak Artaziak eta kola Margoak eta erro- tu- lagailuak</p>	<p>55'</p>
<p>Sukaldeko soinuak</p>	<p>Irakasleak ikasleen eskura jarriko ditu sukaldean topa daitezkeen objektu eta material ezberdinak, ikasle bakoitzari ausaz bat egokituz edo haiei bat aukeratzea eskatuz. Ikasle bakoitzak musika sor dezakeen materiala eskuan duenean (bi tapa, plastikozko ontzia eta koilara bat, dilistaz beteriko botila, e.a.) soinua sortzeko unea heldu da.</p> <p>Jarduera honetan zehar hiru ariketa ezberdin egingo dituzte ikasleek:</p> <p>1. <u>Esperimentatzen</u>: esku artean duten materialarekin esperimentatu dezaten, ikasle bakoitzak soinua bat sortu beharko du</p>	<p>Musikaren bidezko adierazpena sustatzea Musika hautematen ikastea Erritmo eskema sinpleak interpreta-</p>	<p>Inerpertso- nala Intrapertso- nala Hizkuntza Logiko- matemati- koa Kinestesi-</p>	<p>Sukaldean topa daitezkeen objektu eta materialak Erritmoak adierazteko txartelak</p>	<p>55'</p>

	<p>irakaslearen gidaritza jarraituz. Bata bestearen ondoren eginda adibidez, zarata gehiegirik ez sortzeari lagun diezaioke.</p> <p>2. <u>Erritmoa jarraituz</u>: erritmoa adierazteko txartelak erabiliz irakasleak erritmo segida bat osatuko du arbelean, ikasle orok ikusteko moduan. Bera izango da hasieran “Orkestrako zuzendaria” eta haren gidaripean egingo dute musika ikasleek. Hasteko talde handiak erritmo bera egingo du eta ondo ateraz gero, klasea bi taldetan banatu eta bi erritmo ezberdinekin konbinaketak egin daitezke. Ondo ari direla ikusterakoan, ikasleatariko batek zuzendariaren rola hartuz ariketa luzatu daiteke, nahi beste erritmo segida erabiliz.</p> <p>3. <u>Errepikatzen</u>: oraingo honetan ez da erritmoaren adierazpen grafikorik egingo, batek erritmo segida labur bat egin eta taldeak errepikatu baizik. Aurrekoan bezala, irakaslea hasiko da zuzendari rola betetzen, geroago ikasle batek lan hori egin dezakeelarik.</p> <p><u>OHARRA</u>: Irakasleak materialak aukeratzekoan ikasleen garapen maila eta objektuek sor ditzaketen arriskuak oso kontutan izan beharko ditu.</p>	<p>tzea</p> <p>Soinuarekin esperimendatzea</p> <p>Isiltasunaren garrantzia ulertzea</p> <p>Jarraibideak errespetatzen ikastea</p> <p>Arreta lantzea</p>	<p>koa</p> <p>Musikala</p>				
<p>Sukaldariak gara!</p>	<p>Ikasleak taldeetan antolaturik lan egingo dute. Ikasle bakoitzari 4 edo 5 gailera banatuko zaizkio eta talde bakoitzean plastikozko plater bat, txokolatea duen edalontzi bat eta esnea duen beste bat egongo da.</p> <p>Tarta egiteko ikasleek honako prozedura jarraitu beharko dute:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1- Gailera esnean busti eta plateran jarri. 2- Koilararen laguntzaz gailera txokolatez estali. 3- Beste gailera bat hartu eta prozesu bera errepikatu gailera guztiekin amaitu arte. <p>Prozedura hori izanik ere, taldeko kideen artean nola antolatu haiek erabaki beharko dute.</p> <p>Tarta amaitu ondoren, jarraitutako prozesuaren azalpen sinplea asmatu beharko dute ikasleek eta kamerarekin aurkezpenak grabatuko ditu irakasleak, proiektua amaitzerakoan ikus dezaten.</p>	<p>Txokolatez-ko tarta bat egitea</p> <p>Jarraibideak betetzen ikastea</p> <p>Arreta lantzea</p> <p>Motrizitate fina lantze</p>	<p>Interpertsonala</p> <p>Kinestesi-koa</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Logiko-matemati-koa</p>	<p>Gailetak</p> <p>Esnea</p> <p>Txokolate likidoa</p> <p>Plastikozko platerak eta edalontziak</p> <p>Koilarak</p> <p>Argazki kamera</p>	<p>55'</p>		
<p>Platerak osatzen!</p>	<p>Ikasleak 4 kideetako talde heterogeneoetan banatuko dira eta irakaslearen laguntzaz elikadura osasuntsua bermatzen duen menu bat osatuko dute, talde bakoitzari plater bana egokituko zaiolarik. Adibidez:</p> <table border="1" data-bbox="319 1904 925 2038"> <tr> <td data-bbox="319 1904 606 2038"> <p><u>1. MENUA</u></p> <p>1. taldea: Entsalada</p> <p>2. taldea: arraina piperrekin.</p> </td> <td data-bbox="606 1904 925 2038"> <p><u>2. MENUA</u></p> <p>4. taldea: pasta</p> <p>5. taldea: arrautza frijituak patata eta piperrekin</p> </td> </tr> </table>	<p><u>1. MENUA</u></p> <p>1. taldea: Entsalada</p> <p>2. taldea: arraina piperrekin.</p>	<p><u>2. MENUA</u></p> <p>4. taldea: pasta</p> <p>5. taldea: arrautza frijituak patata eta piperrekin</p>	<p>Motrizitate fina lantzea</p> <p>Ikusizko pertzepzioa lantzea</p> <p>Dieta orekatuaren</p>	<p>Interpertsonala</p> <p>Intrapertsonala</p> <p>Kinestesi-koa</p>	<p>Kolore ezberdinetako plastilinak</p> <p>Plastikozko platerak</p>	<p>55'</p>
<p><u>1. MENUA</u></p> <p>1. taldea: Entsalada</p> <p>2. taldea: arraina piperrekin.</p>	<p><u>2. MENUA</u></p> <p>4. taldea: pasta</p> <p>5. taldea: arrautza frijituak patata eta piperrekin</p>						

	<p>3. taldea: frutak</p> <p>6. taldea: frutak</p> <p>Talde bakoitzak egokitu zaio platera irudikatu beharko du plastilina soilik erabiliz.</p> <p>Osaturiko plater guztiak batera esposatuko dira, klasekide guztiek ikusi ahal izateko.</p>	<p>garrantzia ohartzea</p> <p>Sormena garatzea</p>	<p>Espaziala</p> <p>Naturalista</p>		
<p>Ohitura osasuntsuak</p>	<p>Talde handian gure osasunarentzako onuragarriak diren ohituren zerrenda bat burutuko da, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dieta orekatua egin - Kirola egin - Ondo lo egin - Lagunekin jolastu - Ondo garbitu - Barre egin <p>Ondoren talde bakoitzak ohitura osasuntsu bat irudikatu beharko du kartulina batean, horrela guztien artean ohitura osasuntsuen dekalogoia osatzeko.</p> <p>Horren ondoren edo aurretik, kirolen aniztasuna ezagutarazteko eta batez ere horiei dagokien parte hartzeko eskubide berdintasunarekiko jarrera sustatzeko, kirolen inguruko eztabaida sustatu daiteke. Horretarako ikasleek ezagutzen dituzten kirolak aipa ditzakete eta horren ondoren, haientzako ezezagunak izan daitezkeenak irudi zein bideoen bidez ezagutarazi ahal zaizkie. Erabiltzen diren irudiek parte hartzaileen arteko aniztasuna islatuko dute (genero, arraza, gaitasun, adina, e.a.) parte hartzeko eskubidearen inguruko hausnarketa sustatzeko. Ikasleei zeintzuk burutu ditzaketen eta zeintzuk ez galdetu ahal zaie, euren jarrerak ezagutzeko eta hortik abiatuz berdintasunerako jarrera eta errespetua bultzatzeko.</p>	<p>Ohitura osasuntsuak ezagutzea</p> <p>Dieta orekatuaren garrantzia ohartzea</p> <p>Kirolen aniztasuna ezagutzea</p> <p>Berdintasun arekiko jarrera bultzatzea</p> <p>Aniztasunarekiko errespetua sustatzea</p>	<p>Interpertsonala</p> <p>Intrapertsonala</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Espaziala</p> <p>Naturalista</p>	<p>Kartulinak</p> <p>Margoak, errotulagailuak, argizariak, e.a.</p> <p>Kirol ezberdinek argazki eta bideoak</p>	<p>55'</p>
<p>Zoru jolasa</p>	<p>Jarduerarekin hasi aurretik irakasleak jolastokiko zoruan fitxetan ageri diren zenbakiak idatziko ditu klerarekin (zenbaki handiak eta ondo ikusteko modukoak).</p> <p>Hasteko ikasleei fitxa bana banatuko zaie eta zoruan irudikaturiko zenbakien aurrean kokatu. Hortik aurrera irakasleak emandako jarraibideak bete beharko dituzte. Irakasleak norbere zenbakira hurbiltzea eskatu ahal die edo txartelen fruten araberako sailkapena egitea.</p> <p>ADIBIDEAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bilatu zuen zenbakia! - Fruta borobilak erdian elkartu - Marrubiak batu. 	<p>Arreta lantzea</p> <p>Zenbakiak ikastea</p> <p>Frutak ezagutzea</p> <p>Irizpideen araberako sailkapenak egitea</p> <p>Jarraibideak betetzen</p>	<p>Intrapertsonala</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Logiko-matematika</p> <p>Espaziala</p> <p>Kinestesi-koa</p>	<p>Jolaserako fitxak (fruta eta zenbakiak)</p> <p>Klerak</p>	<p>55'</p>

		ikastea			
123 erantzun berriro!	<p>Ikasleak taldeka jolastuko dira txanda bakoitzean ahalik eta puntu gehien lortzeko helburuarekin.</p> <p>Txandaka irakasleak, jolasaren moderatzaile izango denak, irizpide bat luzatuko die taldeei eta minutu bateko denbora tartean, irizpidea betetzen duten ahalik eta erantzun gehien eman beharko dituzte taldeek.</p> <p><u>ADIBIDEA:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Irizpidea: frutak - Erantzun posibleak: sagarra, madaria, laranja, gerezia, banana, e.a. <p>Denbora amaitzerakoan taldeak emandako erantzun zuzenen kopurua zenbatuko da erantzun bakoitzak puntu bat emango dielarik. Minutuak iraun bitartean erantzun oker bat edota erantzun errepikatu bat emanez gero, denbora amaitutzat emango da eta une horretara arte lortutako emaitzak soilik zenbatuko dira.</p> <p>Ondoren, hurrengo taldearen txanda izango da, moderatzaileak egokituriko beste irizpide bat betetzen duten erantzunak eman beharko dituelarik.</p> <p>Jolasa amaitzerakoan, guztira puntu gehien lortu dituen taldea izango da irabazle.</p>	<p>Arreta lantzea</p> <p>Esku-hartzean zehar ikasitakoa birpasatzea</p> <p>Gaiaren hiztegia lantzea</p>	<p>Interpertsonala</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Logiko-matematikoa</p>	<p>Galderen txartelak</p> <p>Emaitzeta-rako txartelak</p>	25'
Tablero jolasa	<p><i>Tribial</i> antzeko tablero jolasa izango da, taldeka jolastuz aurrera jarraitzeko egokituriko proba gainditu beharko dutelarik.</p> <p>Ikasleak taldetan kokatuko dira tableroaren inguruan eta txandaka zenbakidun dadoa jaurtiko dute. Puntuazio altuena lortzen duen taldea hasiko da jolasten. Txandaka taldeek dado biak jaurti eta dagokien ekintza burutuko dute. Asmatuz gero taldeak bigarren jaurtiketa bat izango du, berriz ere dado biak bota eta ekintza bete beharko duelarik. Bigarren jaurtiketaren ondoren, asmatu edo ez, txanda hurrengo taldeari egokituko zaio, oraingoan horrek jolastuko duelarik. Tableroaren amaieraraino ailegatzen den lehenengo taldea izango da irabazle.</p>	<p>Komunikazio bide ezberdinak erabiltzea</p> <p>Arreta lantzea</p> <p>Taldean jolasten ikastea</p> <p>Esku-hartzean zehar ikasitakoa birpasatzea</p>	<p>Interpertsonala</p> <p>Intrapertsonala</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Logiko-matematikoa</p> <p>Espaziala</p> <p>Kinestesi-koa</p>	<p>Tableroa, dadoa eta talde bakoitzeko fitxa bana</p> <p>Mimika, hizkuntza eta marrazkiaren piktogramak dituen dadoa</p> <p>Elikagaien fitxak (irudi zein izenenak)</p>	30'

VI. Eranskina: Edukien ebaluaziorako errubrika

IKASLEAREN IZENA:		GUTXI	ONDO	OSO ONDO	BIKAIN
Giza gorputza	Gorputz atalak identifikatzen ditu				
	Aparatu eta sistemak ezagutzen ditu				
	Organo nagusiak ezagutzen eta definitzeko gai da				
	Organo nagusien funtzioak ezagutzen ditu				
	Digestio bidea mimika bidez irudikatzeko gai da				
	Digestio prozesua azaltzeko gai da				
Elikadura	Elikagaien aniztasuna antzematen du				
	Elikagaiak euren jatorriaren arabera sailkatzeko gai da				
	Elikagaien piramidea ulertzen du				
	Elikagaiak piramidean sailkatzeko gai da				
Ohitura osasuntsuak	Osasuntsu egoteko ohiturak eta kaltegarriak direnak identifikatzen ditu				
	Nor bere burua zaintzeko ohiturekin bat eginez jokutzen du				
	Kirolen aniztasuna antzematen du				
	Pertsona oro kirol ezberdinetan aritu daitekeela onartzen du (elbarrituen kirolak ezagutzen ditu, neska-mutil ezberdintasuna baztertzen du...)				
	Garbitasun ohiturak ezagutzen ditu				
	Ondo lo egitearen garrantzia ulertzen du				
	Elikadura orekatuaren ezaugarriak ezagutzen ditu, horren parte diren elikagaiak identifikatuz				
Talde-lanean	Berdintasunez eta errespetuz aritzen da				
	Ekarpenak egiten ditu				
	Kideak laguntzeko prestutasuna agerrarazten du				
	Adostasuna lortzeko elkarrizketa erabiltzen du				
	Talde lanean aktiboki parte hartzen du				
Modu aktiboan parte hartu du egindako jardueretan					
Ikaskideekiko errespetua agerrarazi du					

VII. Eranskina: Esku-hartzearen emaitzen laburpena

- *Nola sentitu naiz? jardueraren emaitzak*

	Berdea jarri duten ikasleak	Horia jarri duten ikasleak	Gorria jarri duten ikasleak	Ez etorriak
1. SAIOA	% 72	% 8	% 16	% 4
2. SAIOA	% 56	% 24	% 4	% 16
3. SAIOA	% 72	% 12	% 0	% 16
4. SAIOA	% 84	% 12	% 0	% 4
5. SAIOA	% 100	% 0	% 0	% 0
6. SAIOA	% 92	% 4	% 0	% 4
7. SAIOA	% 84	% 12	% 0	% 4
8. SAIOA	% 84	% 12	% 0	% 4
9. SAIOA	% 76	% 12	% 4	% 8
10. SAIOA	% 76	% 12	% 4	% 8
11. SAIOA	% 76	% 12	% 4	% 8
12. SAIOA	% 84	% 4	% 0	% 8
13. SAIOA	% 84	% 12	% 0	% 4
14. SAIOA	% 92	% 0	% 4	% 4
15. SAIOA	% 88	% 4	% 0	% 8
16. SAIOA	% 88	% 8	% 0	% 4
17. SAIOA	% 96	% 4	% 0	% 0
18. SAIOA	% 84	% 12	% 0	% 4
19. SAIOA	% 92	% 4	% 0	% 4
EMAITZAK	% 88	% 10	% 2	

- **Irakaslearen balorazioen emaitzak**

Irizpideak	Ikasleen kopurua %-etan	
	Hasierako balorazioa	Amaierako balorazioa
Modu aktiboan parte hartu du.	% 56	% 100
Taldean ondo lan egin du.	Ez dute taldeka lan egiteko ohiturarik	% 85
Ikaskideekin ondo moldatu da.	% 95	% 95
Laguntza eskaintzeko prest egon da.	% 20	% 48
Lanak egiteko gai sentitu du bere burua.	% 60	% 100
Baloratua sentitu da gelan.	% 75	% 85
Pozik eta zorionsu egon da.	% 75	% 100

- **Gurasoen balorazioen emaitzak**

Irizpideak	Hasierako balorazioa			Amaierako balorazioa		
	5-4	3	2-1	5-4	3	2-1
Pozik eta zoriontsu joan da ikastolara.	% 92	% 8	% 0	% 96	% 4	% 0
Zoriontsu egon da ikastolari buruz hitz egitean.	% 100	% 0	% 0	% 92	% 8	% 0
Gelan egindako ekintzen inguruan modu positiboan hitz egin du.	% 92	% 8	% 0	% 100	% 0	% 0
Baloratua sentitu da gelan.	% 84	% 16	% 0	% 92	% 8	% 0
Gelako lanak burutzeko gai sentitu du bere burua.	% 76	% 16	% 8	% 88	% 8	% 4

VIII. Eranskina: Erabilitako baimenak

- Ikastolaren izena erabiltzeko baimena

Ikastolaren izena erabiltzeko baimena

Nik Juan Zubete Amutio Stegi, 14595870R NAN-aren jabea eta Bilboko Urretxindorra Ikastolako Zuzendaria naizenak, ikastolaren izenean baimena ematen diot Uxue González-i Urretxindorra Ikastolan garatutako Gradu Amaierako Lana argitaratzerakoan ikastolaren izena erabiltzeko.

Bilbo-(e)n, 2016ko maiatze-aren 27-an

Sinatua:



- Irudiak lortu eta erabiltzeko baimena

Nik jaun-andreak, NAN-aren jabea eta ikaslearen guraso naizenak, baimena ematen diot Uxue González-i nire seme-alabaren argazki zein grabaketak egiteko bere Gradu Amaierako Lanaren defentsarako baliabide bezala erabili ditzan, materialek bestelako erabilerarik izango ez dutelarik.

.....-(e)n, 2016ko-aren-an

Sinatua: